

Herririk Herri | 3

Trenbideko obrak urtea amaitezako eginda egotea eskatu du Legebiltzarrak



Berbaz | 10

P. Barrena: "Aintzat hartu behar ditugu alderdi abertzale eta ezkertze guztiak"

Kultura | 11

Sara Bikandi ipuin kontalariak saio berezia eskainiko du martxoaren 31n

EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA | 7

Martxoak 8: Emakumearen egoera hiru belaunaldiren begiradatik



Mari Carmen, Goiuri eta Geaxik martxoaren 8ari eta emakumeen egoerari buruzko iritziak trukatu dituzte. Zaloa Fuertes

DURANGO | 3

Bonbardaketaren egiletza aitortzea eskatu du udalak

Espainiako eta Italiako gobernuei Martxoaren 31ko erasoan izandako erantzukizuna aitortzeko eskatuko die Durangoko Udalak.



KIROLA | 16

Cafés Baqué txirrindulari taldea aurten ere errepidean

ABADIÑO | 7

Atxarteko berreskurapen plana salatu du Bilduk plenoan

Iurreta | 2

Orozketarrak kezkatuta daude goi-tentsioko lineagatik

Durangaldea | 4

Ingurugiro arloko aholkularitza eskainiko diete ehun enpresari

Berriz | 6

Lau biribilgune berri eraikiko dituzte N-634 errepidean

Elorrio | 4

Partaidetza arloko kudeaketa plana lantzen dabil udala

7. Aukera Azoka

Martxoaren 2tik 4ra
Landako Gunean



Ordutegia

Barikua
11:00-14:00 17:00-21:00

Zapatua
10:00-14:00 17:00-21:00

Domeka
11:00-14:00
17:00-19:00



HERRIRIK HERRI >

f Anboto Komunikabideak

@anboto

DURANGALDEA

Jantoki sozialaren proiektuari ekitea onartu dute

Amankomunazgoko aurrekontua onartu dute EAJK eta PSE-EEK; Bilduk kontra bozkatu du

Azkoa baino %2,9 gutxiago jaso dute aurrekontuan: 6.893.000 euro. "Gastu eta sarreraren arteko oreka landuz udalen diru ekarpena arintzea gura izan dugu", adierazi du Oskar Zarrabeitia presidentea. 3,5 milioi euroko diru-soberakina dauka Amankomunazgoak, eta horko 589.000 euro inbertsioetara bideratuko dituzte. Jantoki soziala, eguneko zentroa

Zarrabeitia: "Udalen ekarpena arintzea gura izan dugu, gastu eta sarrerak orekatuz"

eta aterpetxea barneratuko litzuzkeen egoitza bat sortzen hasia gura dute -15.000 euro-, besteak beste.

Guztira, 3 milioi eurotik gora jasoko ditu Gizarte Zerbitzuen atalak. Bilduk, ordea, murrizketa egotea salatu du. Euskararen alorrean ere, bestalde, "ez da logikoa Izarren Distira eta Futbola Oinarritik Euskaraz egitasmoak kopuruak igotzea eta Berbalaguni jasatea", dio koalizioak. Izarren Distirari buruz, nerabeen artean lehiakortasuna bultzatzen duela dio Bilduk, eta bigarrenaren kasuan gazteek futbola baino kirol gehiagotan dihardutela. Galdetu



Astelehen arratsaldean burutu zuten Amankomunazgoko osoko bilkura, Astolan.

du ea zertarako dagoen 3,5 milioi-ko diru-soberakina, eta "gauden krisi egoeran" ea zergatik ez den behar dutenei laguntzeko erabiltzen. Aurrekontuak ez diela Durangaldearen "beharrei erantzuten" salatu du koalizioak.

3,5 milioi-ko diru-soberakina dago aurten; Bilduk eta PSE-EEK kritikatu egin dute

PSE-EE ere ez da ados azaldu diru-soberakinagaz. Dena dela, pozik azaldu da aurrekontuekin eta hitzartzeko moldeagaz; batez ere jantoki sozialaren proiektuagaz, "sozialisten aldarrikapen historikoa da-eta". ■ M. Onaindia

Ehun enpresa aholkatuko dituzte, ingurugiro araudiak bete ditzaten

Udalek aukeratu dituzte enpresak, eta Behargintzak bideratuko du zerbitzua

"Ingurugiro araudiak betetzen ez dituzten enpresen aurrean administrazioek bi bide daukate: zigortzea eta kontrolatzea, edo araudiak betetzeko baliabideak bilatzen laguntzea". Behargintzako zuzendari Augusto Uriarteren berbak dira horiek. Gaia jorratzeko, Behargintzaren bitartez, Amankomunazgoak enpresa ertain eta txikiei ingurugiro araudiak betetzeko aholkularitza eskainiko die.

Duela lau urte egindako diagnostikoaren arabera, eskualdeko enpresen %50ek ez dauka jardue-

ra lizentziarik, eta egoera legeztatze beharrezko dute Europako Batasunak ezarritako ingurugiro araudiak betetzea. Amankomunazgoak 2010ean esperientzia pilotu bat garatu zuen enpresa batzuekin, eta aurten eskualdeko 100 enpresetara zabalduko dute zerbitzua, Ondoa enpresa ahol-

2008an aztertu zutenaz, Durangaldeko enpresen erdiak ez dauka jarduerarako lizentziarik

kulariaren laguntzagaz. Udalek aukeratu dute zer enpresari eman zerbitzua; azaldu dutenez, "behar handiena daukaten enpresak hartuko dituzte kontutan".

Egoeraren diagnostikoa egin eta gero, hartu beharreko neurriekin plangintza indibiduala egingo dute enpresa bakoitzarentzako. Erkuden Arrastua Behargintzako teknikariak azaldu duenez, "enpresa txikietan batez ere, beharrezkoa da diagnostikoa gainera jarraipena egitea, legeak ez dituztelako ezagutzen". ■ A. Ugalde



Enpresen diagnostikoa eta bete beharreko pausoak zehaztuko dituztela adierazi dute arduradunek

IURRETA

Orozketarrek kezkatuta daude argindar linea indartzeko lanengatik

"Nahitaezko desjabetzea" abiatu dela, eta ezer ez dakitela salatu dute auzokoek osoko bilkuran

Arduratuta daude Orozketan argindar linea indartzeko delata. Asteon bertan ikusi dute argitaratuta "nahitaezko desjabetze" prozesua abiatu dela, eta horrek zelan eragingo dien argitzeko eskatu diete udal agintariari. Ingurumenean ez eze, uhin elektromagnetikoek bizi kalitate

hasi behar dugu. Aldaketak edo alegazioak egiteko denboraz ibili gura dugu, epean eraginez ez dadin gertatu ezinbestean lanak aurrera joatea". Udalarri gaiaz jarduteko gune bat sortzea ere eskatu diote, Tokiko Agenda 21ean, Alborg Gutunean edo landa inguruen defentsan hartutako konpromisoak gogoratzegaz batera.

Aldaketa edo alegazioak egiteko denboraz ibili gura dute Orozketako auzotarrek

Totorikaguena alkateak gaia aztertu eta auzokoekin hartu-emanetan jartzeko konpromisoa hartu du

tean eta osasunean izan dezaketene eragina nabarmendu dute. "Umeen leuzemia arriskua handitu ei daiteke".

Udalbatzarrari egutegi bat eskatu diote egitasmoari aurrea hartzeko pausoak emateko: "Hilabete dugu, eta albatzarraren

Elkartzeko konpromisoa
Eurokin batzeko prest dagoela azaldu die Iñaki Totorikaguena alkateak: "Beti egin dugu lurretan eta bertako auzoen interesen alde, eta gai hau ere aztertu egin behar dugu, eman daitezkeen pausoei batera. Asteon jakin dugu guk ere horren berri". Gueñes-Ezkio goi tentsioko argindar linearen aurrean, lurretan "kalteez berbetan lehenengo" izan zela gogoratu du alkateak, eta Bakixan merkantzia garraiorako zentroa egiteko egitasmoari aurre egin ziola lurretako Udalak.

Auzokoekin hartu-emanetan jartzeko konpromisoa hartu du alkateak. ■ A. Basauri



DURANGO

Bonbardaketaren egiletza onartzea eskatu dute

Espainiako eta Italiako gobernuei erasoan izandako erantzukizuna aitortzeko eskatu diete mozio bidez

Alemaniak Gernikaren kasuan egin zuen moduan, Italiako eta Espainiako gobernuek Durangoko bonbardaketaren egiletza onartzea eta barkamena eskatzea eskatu dute, udalbatzan, Durango 1936 Kultur Elkar-teak aurkeztutako mozioagaz.

Testua onartuta, bonbardaketaren ondoren herria berreraiki zutenei eskerrak ematea ere aldarrikatu dute, eta "bonbardaketako biktimei emandako tratamendua eta Frankismotik hona egon den isiltasuna" salatu dituzte.

Mozioko puntu gehienak adostasun handiagaz onartu dituzte; PP abstenitu egin da. Gobernuei barkamena eskatzeko eskariko puntuan, ordea, PSE-EE ere abstenitu da. "Gobernu demokratiko batek ez dauka zertan gobernu faxista batek egindakoa-

gatik barkamenik eskatu", azaldu du Pilar Rios sozialistak. PPko Juanjo Gaztañazatorrek esan du Gerra Zibilean "bi aldeek" sufritu zutela, eta trantsizioan "elkarbitzarako zutabeak" eraiki zirela: "Gertatutakoa memorian izan behar dugu, gorroto barik eta adiskidetasun espirituagaz".

PSE-EE: "Gobernu demokratiko batek ez du gobernu faxista batek egindakoengatik barkamenik eskatu behar"

Durango 1936 K.E.: "Bonbardaketaren egiletza luzaroan isilik egon da"



Aurten 75 urte beteko dira Durangoko bonbardaketetik. Gerediaga elkarteak

Aralarreko Dani Maeztuk Gernikako bonbardaketaren 60. urteurrenean Alemaniako presidentek eskatutako barkamen berbak irakurri ditu. Nabarmendu duenez, "Alemaniak kondolentzia eta dolua konpartitzen duela adierazi zuenean, gobernu ez zen nazia".

Bilduk begi onez ikusi du udalak mozioko konpromisoak hartzea, baina "pena" adierazi du, "bonbardaketaren urteurreneko ekintzetan udal gobernu ez dela-

ko Durango 1936 elkartegaz batu, hain talde aberatsa izanda".

Aitziber Irigoras alkateak salatu du bonbardaketak ez zuela helburu militarrik, eta "kondenagarria" dela, "orduan eta orain". Irigorasek senitar-tean gudariak, errefuxiatuak eta Durango berreraikitzen ibilitakoak izan zituela gogoratu du: "Ezkerraren eta eskumaren arteko gerra izan zela esaten da, baina abertzaleen memoria aldarrikatu gura dut".

Bonbek "bereizketarik ez"

Pleno amaieran, Durango 1936 kultur elkarteak Andoni Barreñak hartu du hitza. Duela 75 urteko bonbardaketan herritarren %5 hil zela nabarmendu du: "Bonbardaketak ez zuen herritarrik bereizi; krudelkeriak ez du diskriminaziorik egiten". Bonbardaketaren egiletza luzaroan isilik egon dela salatu du, eta Durango berreraiki zutenei lana aitortzeko eta eskertzeko premia nabarmendu du. ■ A.U.

Legebiltzarrak trenbideko obrak aurten amaitzeko eskatu dio Jaurlaritzari

Hitzarmena sinatu eta udalari trenbide gaineko lurrak urbanizatzeko dirua ematea eskatu dute

Eusko Jaurlaritzari trenbidearen lurperatzea aurten amaitzeko eskatu dio Eusko Legebiltzarrak. Obrak "aurrekontu konpromisoak betez eta sailburuak jendaurrean egindako adierazpenekin uztartuz" egin ditzala eskatu du, "2012an hasi dadin tren-trafikoa eta lurperatutako trenbide-zati guztian".

Trena 2012an lur azpitik ibiltzea gura dute, eta datak zehazteko eskatu dute

Legebiltzarreko eztabaidara EAJk erotan du gaia, erdibideko zuzenketa baten bidez, eta Aralarrek eta PPK sinatu dute testua.

Hiru konpromiso eskatu dituzte zuzenketa bitartez. Lanak aurten amaitzearen puntua aho batez onartu dute. Obrari dagozkion datak eta lurrazaleko zirkulazioa kentzeko data zehazteko ere eskatu diote Jaur-laritzari, talde politiko guztien aldeko botoagaz.

Horrez gainera, trenbide gainean geldituko den lurzoruaren erabilerari buruz Jaurlaritzari Durangoko Udalagaz hitzarme-

na sinatzeko eskatu diote. Eskaria aurrera joan da alderdi guztien aldeko botoei esker; PSE-EEK kontra bozkatu du.

Hitzarmenean zera zehaztea gura dute; trenbideko lanetan izandako "gehiagizko esleipenengatik" gainbalioa udalarentzat izatea, "gaur egun trenbide-sareak betetzen dituen lurzoruak urbanizatzeko lanak ordaintzeko". Horrez gainera, ETSk konpromi-

Hitzarmena sinatuta, ETSk udalari doan emango lizkieko lurrazaleko trenbideak okupatzen dituen lurrak

soa hartuko luke udalari lurrak kutsadura garbituta eta doan emateko, trenbide azpiegituraren elementu guztiak kenduta.

Legebiltzarrak eskatutakoaren arabera, hitzarmen hori hila-beteko epean sinatu beharko luke-te Jaurlaritzak eta udalak. ■ A.U.

Aurrekontuak negoziatzeko baldintzak ipini ditu PSE-EEK

Urki Hegoaldeko eraztuna amaituko dutela bermatzea da sozialisten baldintzetako bat

Gobernu taldeagaz aurrekontuen negoziazio mahaian jesartzeko baldintzak ipini ditu, Durangoko PSE-EEK: besteak beste, Urki Hegoaldeko eraztuna amaituko dela eta San Faustoko zentro zibikoa egingo dela bermatzea eskatu dute. Proiektu bi horiekin batera, "Montevideon okupatutako etxearen eraisketa eta Frai Juan

San Faustoko zentro zibikoa egingo dutela bermatzea ere eskatzen du PSE-EEK

Zumarragako biribilgunea" ere aipatu dituzte.

PSE-EEren ustez, "atzeko atea" erabili du EAJk "aurrekontuen luzapena bilatuz euren inoperantzia ezkutatzeko". Salatu dutenez, "gutxiengo jeltzaleak udalbatzarraren gehiengo zapaldu" du: "Alkateak aurrekontuen eztabaida bahitu du, bidegabeki zirriborroaren aurkezpena atzeratu; horregaz legea hautsi dute, Ogasun Lokalen Legea, hain zuzen". Durangoko alkatearen jardunbide hori "udalaren egoera ekonomikoa baino arriskutsuagoa" dela salatu dute. ■ A.B./I.E.

etarte www.etarte.com

Barruetako diseinua

Ideiak sortu
Diseinatu
Eraiki
Apaindu
Bermatu

Euskal Herria z/g. ZALDIBAR
T/F: 94 603 04 16
info@etarte.com

Lola

opariak eta lorak

Zaldia elizateko plaza 10
ZALDIBAR
Tel. 94 655 00 08

DURANGO

Aukera Azoka "beste urte batzuetan baino premiazkoago"

Asteburu honetan antolatu du +Dendak elkarteak azoka, Landako Gunean

Gaur goizean zabaldu dituzte Landako Gunean 7. Aukera Azokak. +Dendak elkarteak presidente Guillermo Orbeaskoak nabarmendu duenez, azokan "normalean baino prezio merkeagoak" itxaroten dituzte: "Azken denboraldian krisiak merkataritza txikiari eragin dio batez ere, eta dendek beste batzuetan baino premia handiagoa dute stock-eko produktuak ateratzeko".

Eskualdeko 33 merkatarik parte hartuko dute azokan, eta eurretako 14 kleheengoz. Merkatar

ri gehienak Durangokoak izango dira, baina Iurreta, Abadiño eta Eloorrioko dendari batzuk ere hurretaratuko dira Landako Gunean.

Araceli Guerrero merkataritza teknikariak nabarmendu duenez, denetariko generoa egongo da: arropa, zapatak, koltxoak, optika, barruko arropak, altzariak, elektrogailu txikiak, autoak... 18.000 bisitari inguru itxaroten dituzte.

Erosketak egiten dituzten pertsonen artean, bizikleta bi, 15 motxila, eta erosketetarako 50 gurditxo zozkatuko dituzte. Salmen

ta postuez gainera, umeei zuzendutako hainbat ekintza antolatu dituzte; tartean, zapatuan poneyan ibiltzeko aukera egongo da. ■ A.U.

ORDUTEGIA

Barikuan
11:00-14:00 eta 17:00-21:00
Zapatuan
10:00-14:00 eta 17:00-21:00
Domekan
11:00-14:00 eta 17:00-19:00



Asteburuan 18.000 bisitari itxaroten dituzte Aukera Azokan.

ELORRIO

"Ametsak betetzen" segitu gura dute Gaztetxean

24. urtemugako ospakizunak dituzte zapatuan

Mende laurdena betetzeko urtebete bakarrik falta zaio Eloorrioko Gaztetxeari, 24 egin berri ditu-eta. Sasoi hartan hasitako bidea gogora ekarri, egun osorako ekitaldiak prestatu dituzte biharko. *Gure ametsak dirauen bitartean, zuenak egin du!* lemapean elkartuko dira gazteak, 12:30etik aurrera.

15:00etan jesarriko dira bazkaltzeko, eta arratsaldean familia argazkia aterako dute

Harreraren ondoren trikipotean irtengo dute, eta 14:30ean omenaldirako tartea hartuko dute. 15:00etan jesarriko dira bazkaltzeko, eta arratsaldean familia argazkia aterako dute.

Musikagaz amaiera

Iluntzetik aurrera, musikak hartuko du protagonismo nagusia Eloorrion. Gaueko kontzertuen atariko legez, Anttonek akustikoa eskainiko du 19:00etan. Ondoren, 22:30ean hasita joko dute Fiachras eta Vomito taldeek, eta Izargi taldeak erromeriagaz emango dio amaiera jaiari. ■ M.O.

ATXONDO

Aiako Harriak bisitatzera eta sagardotegira joateko gonbita

Asuntze mendi taldeak Aiako Harrietara eta sagardotegira irteera antolatu du martxoaren 10erako. Egunpasa horretarako izena emateko azken eguna domeka hau da; 50 euro izango da egunpasa.

Goizeko 08:30ean irtengo dute Apatako plazatik. Mendi irteera 10:00etan hasiko dute, eta ordu bi inguruko iraupena izango du. Aiako Harriak deritzana Gipuzkoako mendirik zaharrena da, Aiako Harriak natura parkearen barruan kokatuta dago. Bazkalorduan sagardotegira joango dira eta 19:00etan dute itzultzeko ordua.

Gaztetxetik irteera

Atxondoko Gazte Asanbladak ere beste irteera bat antolatu du sagardotegirako, eta kasu honetan gaur amaitzen da izena emateko epea; Gaztetxean edo Arrano Bentamotz elkartearen egin daiteke. Martxoaren 24an joango dira; autobusa goizean irten eta gaez itzuliko da. Ordutegiak eta diru kontuak izena ematen dutenekin zehaztuko dituzte. ■ J.D.

Asuntze mendi taldeak egunpasa antolatu du martxoaren 10ean

OTXANDIO

Mainerrota zelan mugatu galdetuko diete herritarrei

Iturrizaharreko parkina handitzeko eta Bolalekunik plazara oinezkoen bidea zabaltzeko lanak esleitu dizkiete, asteon, Promociones Ruiz de Infante enpresari. Guztira, sei enpresa aurkeztu dira prozesu negoziatua, eta lanak ekainaren 30erako amaituko dituzte. Lan horiekin batera, Mainerroto autoen sarrera-irteerak ere mugatuko dituzte. Baina oraindik ez dute erabaki zelan.

"Inguru hartako bizilagunen zein komertzioetako jabeen iritzia jaso gura ditugu"

Lanketa hori herritarren beharrezan eta iritzia ezagutzeko egin gura du gobernu taldeak. Horretarako, oraindik noiz erabaki ez badute ere, herritarrekin batzartuko dira.

"Inguru hartan bizi diren bizilagunen zein bertan komertzioak dituzten jabeen iritzia jaso gura ditugu, sarrera-irteerak zehazteko ahalik eta informazio gehien pilatzeko", azaldu du Santi Uribe alkateak.

Iturrizaharreko aparkalekua, herritarrei aparkatzeko tokia bermatu gura zaie eta, era berean, herrigunean normalean izaten den trafiko emaria txikitu dadin ere gura da. ■ J.D.

Udalak partaidetza lantzeko kudeaketa plana egingo du

"Herritarren eta eragileen ekarpena oinarri duen eredu" gura dute udal kudeaketarako

Hauteskunde kanpainan agindutakoa betetzera datorrela dio gobernu taldeak, udalaren kudeaketarako eredu parte-hartzailea osatzeko plana onartu denean. "Herritarren eta eragileen ekarpenetan oinarritutako eredu" dela dio talde jeltzaleak. Tokiko Gobernu Batzarrean onartuta osatuko dute plana, prozesu bat garatuz, azkeneko ondorio-dokumentua idazteko.

Hain zuzen ere, egitasmoaren helburuetako bat dokumentu horretan udal-sailetarako "lan-lerro estrategikoak definitzea" da; "herri-kontsulta bidez erabakiko diren proiektu eta ekintzak zehaz-

tea" ere jo dute begiz. Gardentasuna tresna legez erabiltzea proposatzen dute, eta hori sustatzeko ekimenak garatuko dituzte. Informazioa eskuragarri ipintzeko web gunean atalak sortzea eta asanblada zabalak burutzea daukate aukeren artean, esaterako.

Bildu abstenitu egin zen bozketan, "parte-hartzearen alde egon arren, ez dakigulako oso ondo gobernu taldeak nondik nora bideratuko duen". Hala ere, "asko poztu gara gobernu taldea parte-hartzea bermatzen hasiko delako; badirudi guk bultzatuz egingako lanak zerbaiterako balio izan duela", gaineratu dute.

Ekarpenak

Partaidetzarako plana idazteko bidean, teknikari, alderdi eta eragileekin batuko dira planaren gaineko proposamenak zein emendakinak jasotzeko. ■ M. Onaindia

"Herri-kontsulta bidez erabakiko diren proiektuak zehaztea" jo dute begiz

GALLASTEGI

gallastegiharategiak@euskalnet.net

1955 ean sortua



EUSKO LABEL

Baimendutako harategia

Euskal Okela

Carnicería autorizada

Antso Estegiz, 1

946 812 247

48200 DURANGO

Zalduasolo, 8

946 827 038

48250 ZALDIBAR



Ustekabean harrapa ezazu!



Hemen, Kafeari Baqué esaten diozu

350
kapsula +
99'75€



dohainik*

ESKATU ZURE KAFE-MAKINA
HIPER-EKO KUTXA ZENTRALEAN

Martxoak 17-rarteko baliozko promozioa.

ESKURAGARRI: Hiper Abadiño eta Hiper Simply-n (Lehengo Sabeco).

* Kafe-makina ez dator pertsonalizatua.

▣ MALLABIA

Lodosa-Sartagudako ikastolari laguntzeko Elkartasun Eguna

Martxoaren 24an tonbola antolatuko dutela eta herritarren laguntza eskatu du Mallabiko Udalak

Lodosa-Sartagudako Ibaialde ikastolakegoera ekonomiko larria bizi du, Nafarroako Gobernuak diru-laguntzak murriztu eta gero. "Euskararen aurkako beste eraso bat da", azaldu dute Mallabiko udal arduradunek.

Mallabitik ikastolari laguntza eta bultzada ekonomikoa eman guran, martxoaren 24an Elkartasun Eguna antolatuko dute. Eki-menean herriko kultur talde eta

Ekimenean herriko kultur talde eta eragileek parte hartuko dutela azaldu dute

eragileek parte hartuko dutela aurreratu dute udal arduradunek.

Herritarrei tonbolarako materiala Kultur Etxean uzteko eskatu diete

Egun osoko egitaraurako prestatzen diharduten ekintzetako bat tonbola da. Herritarrei etxean dituzten arropa, bitxi... edozein material Kultur Etxera eramateko eskaera luzatu diete, martxoaren 22a baino lehenago. Batutako diru guztia Ibaialde ikastolari emango diote. ■ J.G.

▣ IZURTZA

Herritarrei galdetuta, hiru gelako etxeak salmentan jartzea da aukera onena

Frontoi ondoko etxebizitza berrien gaineko galdeketari 26 herritarrek erantzun diote

Frontoi ondoan egitekotan diren etxebizitzaren gainean udalak banatu duen galdeketa 26 lagunek erantzun dute. Alokairuko ala erosketako etxebizitzak gurago dituzten galdetuta, aukera biek antzeko erantzun kopurua jaso dute; 21 erantzun erosketaren aldekoak dira, eta 18 alokairuaren aldekoak.

Gela kopuruari dagokionez, hiru gelakoek 22 boto jaso dituzte; gela biko aukerak 13 erantzun

izan ditu, eta gela bakarrekoak lau besterik ez. Argitu behar da herritar batzuek aukera bat baino gehiago aukeratu dituztela. Erantzunak eman dituztenen gehien-goia 20-35 urteko gazteak dira.

Herritarren erantzunak baloratu ondoren, proiektua idazteari ekingo diote. Udal ordezkariak pozik agertu dira "erantzun kopuruak eskaria badagoela adierazten duelako". ■ J.D.

▣ MAÑARIA

Frontoiaren erabilerari buruzko arau berriak, herritarren foroan osatuta

Gaia lantzeko foro irekia burutu dute asteen



Asteburuetan ezingo da frontoia alokatu 11:00etatik aurrera.

▣ BERRIZ



Gasolindegia parean hasi dituzte biribilgunea egiteko lanak.

Lau biribilgune berri N-634an, bat Olakuetako bidegurutzean

Trafikoa berrantolatzeko obrak hasita daude; 2013ra arte iraungo dute

Bizkaiko Foru Adundiak N-634 errepidean lau biribilgune berri egingo ditu Abadiñotik Berrizerako bidean. Errepide horretako trafikoa lasaitzea du helburu egitasmoak, eta baita Eituako industrialderako sarbideak berrantolatzea ere; 2011ko abenduan ekin zioten lanari, eta 2013ko apirilean amaitzea aurreikusit dute. 2.852.530 euroko aurrekontua dauka proiektuak.

Lehenengo biribilgunea Felipe Amezua hiltegia izandakoaren eta Mafisa enpresaren parean kokatuko dute. Beharrezkoa izango ei da hiltegiaren eraikina botatzea, aldunditik diotenez. Bigarren biribilgunea gasolindegia zonaldean eraikiko dute, eta hiru-

Beharrezkoa izango ei da Felipe Amezua hiltegiako eraikina botatzea

Olakuetan, gaur egun dagoen zatitutako biribilgunea oso-osokoa izango da

garrena 300 metro aurrerago dagoen bihurtuko dute; "istripu gehien gertatzen diren lekuan", jakin eragin dutenez.

Olakuetan auzoan ezarriko dute laugarren biribilgunea. Hain zuzen ere, egungo biribilgune

zati osoa izango da lanak gauzatu ondoren. N-634 errepideaz gainera, herriguneko eta Miota-rako bideei eragingo die.

Sarbideak

Eituako industrialdeko sarbide eta irteerak era argiagoan zehaztuko dituzte, eta "posible den heinean murriztu ere bai", aldundiko arduradunek diotenez. Ibilgailuek ezkerrean biratzea saihesteko babesguneak egokituko dituzte, eta sartzeko lursail zabala duten eremu batzuetan hormigoizko hesiak eta espaloiak altxatuko dituzte. Gainera, bazterbide zabaleko guneak bi metrora murriztuko dituzte, bertan aparkatzea ekiten. ■ M.O. naandia.

▣ ZALDIBAR

Gaztetxeak zortzi urte bete izana ospatuko dute datorren astean zehar

Zortzi urte dira herriko gazteak Olazar gaineko eraikinean lehenengo biderrez batu zirela

Zaldibarko Gaztetxeak atek zabaltzeko zortzi urte bete diren martitzenean, martxoaren 6an. Ospakizunerako ekintzak prestatu dituzte, baina ez egun horretara mugatuz.

Urtemuga egunean arratsaldeko 19:00etan elkartuko dira Gaztetxean, luntxagaz eta txapli-

guekin jardunaldiari hasiera emateko. Barikuan umeentzako jolasak prestatuko dituzte arratsaldean, eta gauez Etxeren kontzertua ikusteko aukera edukiko dute.

Zapatuan, bazkaria

Martxoaren 10erako herri-bazkarirako deia egin eta txartelak salgai ipini dituzte Castet elkartean. Eguenera arte eskuratu ahal izango dira txartelak, 9 euroan; ikasle eta langabetuek 7 euro ordainduko dute. Gauez jarraituko du festak, The Mockers eta Egurra Ta Kitto musika taldeekin. ■ M.O.

Herri-bazkarirako deia egin martxoaren 10erako, eta txartelak salgai ipini dituzte

Abenduan egin zuten batzarrean herritarrek egindako ekarpenak jasota, arautegi proposamenagaz aurrera egiteagaz ados agertu ziren udalak martitzenerako deitu zuen frontoiaren erabilerari buruzko ordenantza gaineko foroan parte hartu zuten sei herritarrek. Ogasun batzordearen eta plenoaren oniritzia jaso ondoren ipiniko dute ordenantza indarrean.

Frontoia, oraingo moduan egun osoan barik, ordu zehatz batean ahal da alokatu: herritarrek eraikina baliatzeko aukera izan dezaten, asteburuetan, esaterako, 11:00etatik aurrera ezingo da frontoia alokatu, eta herritarren erabilerarako libre geratuko da.

Araudi berriak jasotzen duenez, frontoia alokatzeko zortzi euro ordainduko dute mañariarrek edo tartean mañariarren bat daukaten taldeek, eta hamar herritik kanpokoek. Pilota eskolak barik, udalak kudeatuko du aurrerantzean, bestalde, frontoia. ■ I.E.



Durangaldean labor

Elorrioko Auzo Kontseiluaren eraginkortasunari buruz

Bilduk bere aldizkariaren bigarren alea kaleratu berri du. Xabier Orbegozo zinegotziari elkarrizketa egin diote, eta Auzo Kontseilua "tresna baliagarria" izan daitekeela dio, "dauden arazoak hurretik eza-gutu eta adostutako konponbideekin bideratzeko". Legealdi berriari Auzo Kontseilua behin bakarrik batu dela salatu du: "Ezin esan gobernu taldeak kontseiluari dagokion garrantzia ematen dionik".

Ehun urte egin ditu Teresa Carreto durangarrak

Teresa Carreto durangarrak ehun urte egin berri ditu. Asteon, urtebetetzea ospatzeko, Durangoko Udaletik eta Bizkaiko Foru Aldunditik bertaratutako ordezkariak lore sorta oparitu diote. Senitartekoak eta ezagunak aldame-nean zituela, Teresa Carretok irribarez eta umore onez hartu zuen lore sorta, eta esker oneko berbak izan zituen ingurukoentzat.



Zuhaitz landareak eskuragarri lurretan

Zuhaitz Egunaren harira, Iurretako Udalak 1.241 landara (haritza, pagoa, urkia...) banatuko ditu herritarren eta erakundeen artean. Interesatuak martxoaren 6a baino lehenago Ibarretxe kultur etxean eskatu behar dituzte landarak. Telefono bidez ere egin daiteke eskaera: 94 620 03 42

GARAI

Gerediagatik Garairako bideko lanak amaitzen

Espaloia zati guztiak eraiki dituzte, eta abiadura moteltzeko oztopoak estali ere bai

Azken lanetan murgilduta dabilta beharginak, dagoneko, Gerediagatik Garaira doan errepidean. Lebarion A8 autobideko aldaketak zein biribil-gunea sortzeko lanek eraginda hasi zuten obra, orain hiru urte luze. Izan ere, Garaiko Aiarzun-Goitia inguruan zabortegea edo soberakinen biltegia zabaldu zuten obra horiei guztiei erantzuteko.

Asteon, bideko marrak horitik zurira aldatzen ibili dira beharginak

Zabortegeira bideak egunean 108 kamioien bueltan errepidetik igarotzea eskatzen zuen, eta oinezkoentzako zein zikloturistentzako segurtasuna bermatzeko helburuagaz hasi zituzten lanak.

Oraindino arduradunek ez dakite egitasmoa guztiz noiz amaituko den. Azken asteetan, baina, lanek aurrerakada nabarmena izan dute. Espaloia, bere zati guztietan, eraikita dago, eta ibilgailuen abiadura moteltzeko ezarritako sakangune edo oztopoak estali dituzte. Asteon, bideko marrak horitik zurira aldatzen ibili dira beharginak, eta bidegurutze bateko kanala ere konpondu dutela



Errepideko lanak azkenetan direla, zabortegea ixtean amaituko dute egitasmoa.

jakin eragin dute udal ordezkariak eta obraren arduradunek.

Zabortegea estali behar
Proiektua amaituta geratzeko, Aiarzun-Goitiako zabortegea itxi beharko dute. Lurragaz estaliko

Zabortegeko zuloa lurragaz estaliko dute eta ingurunea atonduko dute gero

dute uneotan dagoen zuloa, eta ingurunea atonduko ei dute gero. Trafikoaz gainera, zarata eta poluzioan ere eragin dute lanek, eta Garaiko zein Gerediagako bizilagunen kezka iturri izan dira hila-beteotan. ■ M. Onaindia

ABADIÑO

Bilduko Saioa Zuazubizkar zinegotziak eroan zuen Atxarteko harrobia berreskuratzeko proiektua martitzeneko plenora. Abadiño Independententeak taldeko gobernuak Abiadura Handiko Trenaren obrak burutzen diharduen Adif enpresak aurkezturiko proiektuagaz, "lehiaketa publikorik deitu barik" aurrera egiteko eta "enpresa horri bidea lautzeko" asmoagaz diharduela dio Bilduk.

AHT eraikitzeke obretan sortzen dituzten lur soberakinak Atxarteko harrobia berreskuratzeko erabiltzea jasotzen du Adif enpresaren proiektu horrek. Eusko Jaurlaritzari ingurumenaren gaineko inpaktuari buruzko txostena ez egiteko eskatzea egotzi dio Bilduk gobernu taldeari.

"Jaurlaritza da ingurumen-inpaktuari buruzko txostenik ez dela behar dioena, ez gu", erantzun zuen Navarro alkateak. ■ I.E.

Atxarteko berreskurapen proiektua salatu du Bilduk

Ingurumen inpaktuari buruzko txostenik ez dago



Adif enpresak aurkeztu zuen berreskurapen proiektua.

Zahar-egoitzetan lekurik ez dutenentzako laguntza

Udaleko hiru alderdiek prestatu eta onartu dute aldundiaren laguntza osatzen duen ordenantza

Aho batez onartu zuten Abadiño-ko Independententeak, EAJ eta Bildu alderdietako zinegotziek zaharren "egoitza zerbitzuetan sartzeko udal laguntzen ordenantza". "Bizkaiko Aldundiak eskaintzen dituen zaharren egoitzetako plazetatik kanpo geratzen diren herri-tarrak, dependentzia maila larri-

Aldundiaren zaharren egoitzetan plazarik lortu ez dutenei laguntzeko araudia

rik eduki ez arren beharrezana badutenak laguntzeko helburuagaz landutako arautegia" biltzen du martitzeneko udalbatzarrean onartutako ordenantzak. Udalaren diru-laguntza jasotzeko zer baldintza bete behar diren zehazten du ordenantzak.

"Aldundiaren laguntza boro-biltzen du ordenantza honek, eta oso beharrezko ikusten dugu krisi sasoiari gizarte laguntzak gartztea" esanez, alde bozkatu zuten Bilduko zinegotziek. Oposizioko beste alderdiak ere, EAJk, "oso positibo ikusten" du. ■ I.E.

ALBORDI
HARATEGIA HARATEGIA
DURANGO

Bertako okela
Aurretiaz prestatutako janariak
Askatasun etorbidea, 1
Tf: 94 681 76 58
48200 DURANGO

El Jurado del DECIMOGUINTE CONCURSO MUNDIAL DE MORCILLAS BEKAINAS
hauek GANADOR del mismo, con el título de
BEKAINO ODOLOSTETAN GAILEN 2009
Eminencia en la elaboración de Morcillas
Alberdi Harategia
Datuak: El Jurado del Concurso Mundial de Morcillas Bekainas, ha declarado ganador al equipo de Alberdi Harategia, de Durango, por su elaboración de morcillas.

ALBORDI
prekozinatuak

BERBAZ >

“Biktima guztiek behar dute aitortza eta euskal gizartearen errekonozimendua”

Barrenak euskal politikagintzari buruz Sotok egindako galderak erantzun ditu Platerueneko oholta gainean



Pernando Barrena*

- Iruinsemea
- Ezker Abertzaleko kidea

“Guk ez diogu inoiz uko egingo ez EAJrekin ez beste inorekin hitz egiteari”

Pernando Barrena (Iruña, 1965) Ezker Abertzaleko kidea elkarrizketatu du asteon Iñaki Soto Gara egunkariko zuzendariak Durangon. Berbertan elkarrizketa zikloko bigarren saioak ikusmina sortu du asteburuan Ezker Abertzaleak ‘Konponbide haizea dabil’ dokumentua aurkeztu ondoren. Testu horretan, “trantsiziozko justiziaren beharra” aldarrikatu dute.

Zer egingo du Ezker Abertzaleak biktimen gaiagaz?

Herri honetan bortxazko egoera bat egon da, eta alde guztietatik izan dira biktimak. Biktima guztiek behar dute aitortza eta biktima guztiek behar dute gizarte honek eskaini beharko dien erreparazio motaren bat. Hori kostako da egiten. Denbora asko beharko dugu, baina nik uste dut igande honetan Ezker Abertzaleak bazuela helburu bat, eta da beste aldean badagoela komunitate zabal bat ETaren biolen-

tzia pairatu duena. Norabide horretan beharrezkoa zen Ezker Abertzaleak alde bakartasunetik urratsak ematea, eta min hori aitortzea.

Zeintzuk izan daitezke alde bakartasunaren mugak?

Epe ertain eta luzera begiratu behar dugu. Beste aldean ez dugu une honetan interlo-

“Alde bakartasunak balio behar du herri presioa gero eta handiagoa izan dadin”

kutore bat aurkitzen, baina nik uste dut azken hiru urte hauetan alde bakarretik egindako bide honek erakusten duela indarrak eta akordioak bilduta eta autodeterminazioaren eta konponbidearen aldeko pankartaren atzean gero eta jende gehiago bilduta, gertatzen ari den

bezala, kapazak izan gaitzkeela egoera politikoa aintzintatzeko eta etorkizun ertain eta laburrean sortu daitezkeen edozein erronkari aurre egiteko. Horixe da azpimarratu behar den gauzetako bat. Alde bakartasunak balio behar du herri presioa gero eta handiagoa izateko, alde biko dinamika horretan sartu nahi ez duten horien jarrera immobilista horiek jasangaitz bihurtu arte.

Joan den asteburuan aurkeztutako dokumentuak berradiskidetzea du berbagai.

Berraskidetzeaz hitz egiten dugunean, Ezker Abertzaleak bi gauza esan nahi ditu. Bata, berradiskidetzea ez dugula ulertzen denok lagun egitea bezala, baizik eta hainbeste faktura pasatu digun gatazka baten ondorioz lan egin behar dela Euskal Herrian bizi garen kultura politikoa guztiok elkar onartu dezagun. Eta bigarrenik, Ezker Abertzaleak edozein alderdi politikok bezala baduela herri hau goberna-

tzeko aspirazioa, baina biztanlego guztiarentzako.

“Herri honetan ezkertze eta abertzale sentitzen diren guztiak hartu behar dira aintzat”

Nola baloratzen duzu une honetan Aralarren posizioa?

Nik uste dut Aralarrek ordezkatu duen esparrua kuantitatiboki erreparatu beharrean kualitatiboki baloratu behar dugula. Guztiok dugu iraganeke motxila bat. Hala ere, tripetatik egiten den diskurtsoetik haratago joaten jakin behar dugu, eta buruarekin pentsatu. Inportanteena ez da nondik zatozen nora joan nahi duzun baino. Nora joan horretan kontaktu egin behar dugu herri honetan ezkertze eta abertzale sentitzen direnekin. Beraien arteko gatazka beraiei utzi behar dizkiegu, errespetu osoz.

Fronte zabalaren ondoren fronte abertzalea dator?

Guk ez diogu inoiz uko egingo ez EAJrekin ez beste inorekin hitz egiteari eta posible izan daitezkeen denetariko akordioak erdiesteari. Posizioak aldatzen ari dira. Ezker Abertzaleak bigarrengoaren papera eman dio bere buruari, EAJri begira historikoki, baina nik uste dut hori errotik aldatu dela. Etengabeko eskaintzak egingo ditugu akordio politiko handitara heldu ahal izateko. Garai berri hauetan aldaketak daude taula politikoan, eta EAJk beldurrez begiratzen dio, konturatu delako ez direla joko banatzaile arituko, besteok ere jokatu dezakegulako bereak baino hobeak diren kartekin.

Nazioarteko komunitateak zer eman dio prozesuari?

Bereziki Irlanda eta Hegoafrikako mugimenduek laguntza handia suposatu dute Ezker Abertzalearentzat, posizio politikoen garapenerako. Haien aholkuek asko lagundu digute. ■ J. Guenetxea

Zure etxebizitzaren
%100 finantzatzen dugu
Errotaritxuenan

Baldintzarik hoberenak
idatziz bermatuak

ESKAEREN %80 BAINO
ONARTUTA GEHIAGO



Deitu orain eta konpromisorik gabe galdetu

94 6812358

Fray Juan de Zumárraga 13, Durango

94 6217360

Pza. Ezkurdi 3, Durango

Eta edozein sukurtsalean:

SabadellGuipuzcoano



IRITZIA >

gutunak@anboto.org

Gutunak @

Inork ez du gutaz berba egingo hilda gaudenean

Aurretik daukagun izen ona (hainbat hedabidek ondo elikatu dutena), telebista kateen interesik eza, atzeraldi ekonomikoa, Txirrindularitzaren Nazioarteko Batasunaren (UCI) kanpaina globalizatzailea... gure tradiziozko txirrindularitza ingurunea suntsitzeko moduko eragina izaten ari dira.

Urkiolako Igoera, Bira amateurra, pistako Euskadiko 6 Orduak desagertu ziren, badoakigu Igorreko ziklo-kros frogak. Orain Laudioko Sari Nagusirik barik geratuko gara eta aldi kritikoan sartu dira Euskal Herriko Itzulia eta Donostiako Klasikoa.

La Oreja de Van Gogh da Euskadiren enbaxadore, Guggenheim museoa ere badaukagu turismoa erakartzeko eta Espainiako Vuelta ere pasatzen da azkenaldian Euskal Herri-tik.

50.000 euskal herritar joango dira Madrilera eta Athletic-en finala ikusiko dute, edo beharbada lehenengoa bakarrik egingo dute, Erreinu hiriburuko hainbat gremioren pozerako.

Eman dezagun euro bana gure herriko bi froga izarrak egiten jarraitu ahal izateko. Ekimen ona da.

Gero eta gehiago dira desagertzen dabilen kadeteen eta jubentzen pelotoiak eta maila horretako frogak, udalak diruz larri dabilzalako, zorretan ez bada.

Eta ez ditzagun ahaztu Durango Emakumeen Saria eta Emakumeen bira ere, munduko talderik onenak batzen dituztenak. Emakumeak ere lehiatzen dira. Zenbat denbora iraungo ote dute nazioarteko bi froga horiek?

Gu zuhurrak izango gara: euro bat oraintxe bertan hasita.

Patxi Torregrosa García - Iurretako Emakumeen Bira Ziklismo Kirol Elkarte presidentea

Klik batean @



Askondoko zuhaixkak

Iurretako Askondo kaleko bidegurutzean dauden zuhaixka zimelek auto gidariei ikusteko gaitasuna erabat kentzen dietela salatu du herritar batek. "Gasolindegitik datozen autoak ez dira ikusi ere egiten bidegurutze horretan", azaldu du.

Sei hankako mahaia

Beste behin gertatu zan...



Dani Maeztu Aralar

Bazen behin eskualde eder bat, Abiadura Handiko Trenaren obrez zeharkatua, harrobiz zultua. Herri horretan lanparra baino ohikoagoa zen zintzurra ardo gorriz bustitzea. Halako batean, lagun bi elkartu ziren tabernan, txikito batzuk edateko. Batak egunkaria irakurtzen zuen; besteak edalontziari begiratzen zion. Telebista piztuta zegoen, Valentiako Camps presidente ohia- ren inguruko albisteaz berbetan ari ziren. Ustelkeria politikoa gora eta behera ziharduten. Lagun batek besteari esan zion orduan, "tamalgarria da alderdi politikoko bateko karneta izateagatik hainbatek pribilegioak edukitzea".

Tamalgarria da alderdi bateko karneta izateagatik pribilegioak edukitzea

Edalontziari begira zegoenak begirada altxatu eta hitza hartu zuen. Ni metro batzuetara nengoan eta elkarrizketa entzuteko parada izan nuen. Lagun hark ezagutzen omen zuen kasu deitoragarri bat: harrobi jakin baten jarduera baimentzeko arauak aldatu zireneko, eta aldaketa horren atzean alderdi batean afiliatuta zegoen enpresari bat omen zegoeneko. Alderdi hori boterean izanda, arauak aldatzeko aukera zuen. Kontakizun hori entzun ostean, besteak kendu zion hitza: "Aizu, ba nik badaukat beste bat; sexu indarkeriagatik kondenatuta egon den futbolari bati indultua eman zioten orain dela gutxi, eta zurrumurrua dago influentzia politikoa ere badagoela horren atzean, nekez gertatzen baitira horrelakoak", bota zuen. "Eta zer ikusi daukate harrobiek sexu indarkeriarekin?", itaundu zion lagunak azken esaldi hori entzun ostean. "Harrobiak aipatu dituzu, eta ez dakit zergatik burura etorri zait", bukatu zuen besteak.

Eta hau hala ez bazan... Zoritarrez, izan, bada. Eta Euzkadin, euzkotarren aberrian gertatzen da.

Zure eritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215 Iurreta - astekaria@anboto.org
Izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta NAN zenbakiagaz batera bialdu behar dira.

Alderdi, elkarte edo taldeko eritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren erizpideak jarraituz zuzenduta publikatuko dira.
DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO

Laguntzaileak:

BFA DFB Bizkaiko Foru Aldundia
 Kultura Saila
 Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
 Kultura Sailak
 (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
 diruz lagundutakoa

anboto komunikabideak
 Bixente Kapanaga, 9
 48215-Iurreta (Bizkaia)
 Tel.: 94 681 65 58
 Erredakzioa: 94 623 25 23
 Publizitatea: 94 621 79 02
 publi@anboto.org
 2012ko martxoaren 2a
 10. urtea - 449 zk.

Zuzendaria: Jone Guenebxea.
Erredakzio burua: Joseba Derteano.
Administrazio burua: Itziar Belar.
Administrazioa: Miren Abasolo.
Publizitatea: Goretti Alonso, Amaia Huarte, Itxaso Altuna
Erredakzioa: Aitziber Basauri, Itsaso Esteban, Markel Onaindia, Amaia Ugalde.
Maketazioa: Ainhoa Arizmendiarieta.
Testu zuzentzailea: Igor Elortza.
Argazkilariak: Kepa Aginako, Juanra de la Cruz eta Zalao Fuertes

@anbotokultura

KULTURA

IPUIN KONTALARITZA > ELKARRIZKETA

“Kontatuko duzuna zeuri gustatzea da garrantzitsuena”

Bonbardaketaren urteurrenean, martxoaren 31n, saio berezia egingo duen Durangoko Udal Liburutegiko umeen txokoa batu gara **Saroa Bikandi** ipuin kontalari durangarragaz, bere lanari buruz jarduteko

Durangoko Liburutegi honetan hainbat ipuin saio eskaintzen dituzu. Zenbatero?

Hilean behin antolatzen dituzte umeentzako ipuin kontalaritza saioak Durangoko Liburutegian, eta iaz neu ere etorri nintzen emaldi bat eskaintzera. Aurten beste saio bat eskainiko dut, berezia: martxoaren 31n, bonbardaketaren urteurrenerako prestatuko dut.

Bonbardaketaren gaia bereziki landuko duzu, beraz.

Bai, horrela eskatu zidaten: bonbardaketaren urteurrenerako saio berezia prestatzea. Bestela egiten dihardudan saioa *Etxe poxpola* izenekoa da, eta horregaz dihardut, batez ere, orain.

Zelan egiten duzu lan? Zeuk sortzen dituzu istorioak?

Kontatzen ditudan ipuinak liburutatik hartutakoak dira: album ilustratuetatik hartutakoak gehienak. Saio baterako hainbat libururako istoriak uztartzen ditut.

Badaukazu bereziki gustuko duzun edo umeen harrera ona jasotzen duen autorerik?

Ez nuke esango autore kuttunik dudarik. Ipuin klasikoek oso

harrera ona edukitzen dute, baina normalean horiek gurasoek kontatzen dituztenez, bestelakoak hautatzen ditut gehienetan. Noizean behin, euskal kulturako ipuin laburrak sartzen ditut: egunero ko gauzetaz berba egiten dutenak.

“Semeagaz eta bere lagunekin probatzen ditut normalean ipuinak”

Zeren arabera aukeratzen dituzu kontatuko dituzunak?

Semeagaz eta bere lagunekin probatzen ditut, normalean, ipuinak: eurekin esperimintatzen dut, eta ikusten dut eurek zer eskatzen duten eta abar. Garrantzitsuena, baina, kontatuko duzuna zeuri gustatzea da, istorio horrek zure barruan, dela barrea dela tristura, baina zeozer eragitea.

Zer ipuinek dauka, esaterako, arrakasta gehien?

Ipuin klasikoek oso harrera ona izaten dute: Errusiako klasiko bat den *Babayaga*, esaterako, asko



gustatzen zaie umei: ez da ohikoa, eta umeek oso gustuko dituzten elementuak biltzen ditu.

Zelan joan zen joan zen barikuko Elorrioko emanaldia?

Iaz eskaintzen jardun nuen *Txita polita* lanaren azkeneko emanaldia izan zen Elorrioko joan zen barikuko hori. Oso gustura jardun nuen, eta batu zen ume piloagaz ere harritu egin nintzen: 40 ume inguru batu ziren.

“Saio baterako hainbat liburutatik hartutako istorioak baliatzen ditut gehienetan”

“Zeu zelan zauden, kontalaritza saioen emaitza ere halakoa izan daiteke”

“Batzuetan, zelan lortu duzun jakin barik, oso pozik amaitzen dituzu saioak”

Zelan hasi zinen honetan?

Ama izan nintzen, eta familia eta lana uztartzeko era bat topatu behar nuen. Aurretik Atartegaz liburutegiaren lan egin izan dut, eta Alaitz Muro laguna ere ipuin kontalaria da: oso gertuko sentitzen nuen hau guztia, eta horrela ekin nion. Iurretako Liburutegian egin nuen lehenengo saioa.

Zelan lortzen da pareko 40 umeak adi mantentzea?

Batzuetan, zelan lortu duzun jakin barik ere, oso pozik amaitzen dituzu saioak: umeen arreta harrapatzea lortu duzu, eta motibatu egiten zaitu horrek. Baina egunak eta egunak daude. Adoregabatu egiten zaituzten saioak ere ateratzen dira, baina, noizean behin. Zu zelan zauden ere, zelako eguna duzun, eragina du emaitzan.

Zenbat dute zure ipuin saioek antzerkitik?

Ipuinak kontatzerakoan ni neu naiz, Saroa, eta errekurso batzuk badaukadan arren, ez dut antzerkirik egiten. Badaude zarata eta gorputza asko erabiltzen duten kontalariak, baina nik ez dut horrela egiten. Nik ez dut nire burua ezer berezia egitera behartzen, naizen bezala agertzen naiz. ■ I. Esteban

Masajeak eta kontuak: ‘Azalerako ipuinak’

Ipuin kontalaria eta haur masajeko irakaslea ere bada Saroa Bikandi, eta zaletasun eta ogibide bi horiek uztartzen dituen *Azalerako ipuinak* proiektua ahalik eta lekurik gehienetan zabaltzeko helburuagaz dihardu: masajeak, ipuinak, kantak, eskujolasak, magaleko kantak, etab. uztartzen ditu 0 eta 2 urte bitarteko umeentzako saioetan.

Bilboko Muxux Muxu denda egiten du hilero saio bat, eta Aste Santu ostean Durangon ere eskainiko du *Azalerako ipuinak*.

Aste Santu ostean Durangon ere eskainiko du ‘Azalerako ipuinak’

Haur masajea eta ipuin kontalaritza uztartzen dituen proiektu berri hau zein azken urteetan eskaini dituenak lako ipuin kontalaritza saioak “ahal den leku guztietan eskaintzea” du Bikandik helburu, eta proposamen berrietara ere zabalik dago (sakoamalakoi@yahoo.com).

“Milaka pelikula eta bideo eskura izan arren”, dio Bikandik, “istorioak dira umei gustatzen zaizkienak”. Istorio horiek kontatzerakoan, irudirik ez baliatzea du erronketako bat: liburueta-ko ilustrazioak baliatu barik, berbaz bakarrik jardutea.

ZINEMA > EMANALDIA

El Salvadorreko historiari buruzko 'El cielo abierto'

1980ko hamarkadan hil zuten Oscar Arnulfo Romero apaiz iraultzaileari buruzko pelikula, Elorriko Iturrin

Martxoaren 8ko Elorriko Hilean Behin jaialdiaren emanaldian eskainiko dute, 19:30ean hasita, Iturri kultur etxeko areto nagusian, Evertardo Gonzalezek 2010ean zuzenduriko *El cielo abierto*.

Martxoaren 8an, 19:30ean, eskainiko dute dokumentala Iturrin

1980ko martxoaren 24an meza ospatzen zebilela, El Salvadorren hil zuten Oscar Arnulfo Romero apaiza ardatz, biolentzia politikoaren eta giza eskubideen urraketa kontrako borrokaren kontakizuna da dokumentala.

Ondoren etorriko zen hamar urte baino gehiagoko gerra zibilaren iragarle izango zen abadearen hilketaren gertakizunaren inguruan sortutako lana da, beraz, Hilean Behin zikloan martxoan emateko aukeratu dutena.

Ertameriketako herrialde hartan pobreak eta errepresioak eragindako injustiziak salatu zituen elizgizonaren figuraren gaineko dokumentala da *El cielo abierto*. ■ I.E.



ARGAZKIGINTZA > SAN BLAS LEHIAKETA

Ivan Rodriguezen eta Eneka Larrakoetxearen irudi sarituak

Rodriguez durangarrak jaso du lehiaketako lehenengo saria eta Larrakoetxeak herrikoa



Durangaldeko, Bizkaiko beste herri batzuetako eta Gipuzkoako parte-hartzaileen lanak jaso dituzte aurtan Abadiñoako San Blas eguneko argazki lehiaketan; 52, guztira. Ivan Rodriguez durangarrari

Bizkaiko eta Gipuzkoako 52 parte-hartzaileen lanak jaso dituzte

eman dio epaimahaiak lehenengo saria, eta Eneka Larrakoetxeari herriko argazki onenaren saria.

Eguneko azken argiaren eta San Blas azokako erakusmahaietako batek ematen zuenaren kontrastea islatzen du Rodriguezek lehiaketara aurkeztutako argazkiak: eguzkia sartu orduko unean, tripodera erabiltzen zuten *Azken orduko erosketak* deitu zuen argazkia durangarrak, eta 400 euroko saria jaso du. Orain hiru urte ere San Blas eguneko argazki lehiaketa honetan saria jaso zuen Rodriguezek.

Eneka Larrakoetxearen *Belau-naldi aldaketa* izeneko argazkiari egokitu dio, bestalde, Abadiñoako parte-hartzaile batek aurkezturiko argazki onenaren 150 euroko saria epaimahaiak. Ardiei begira dauden alabaren eta alda-

meneko gizonaren tamainaren kontrasteagaz jokatu zuen Larrakoetxeak zuri-beltzeko irudian.

Otsailaren 3ko San Blas eguneko argazki lehiaketara aurkeztutako lanetariko batzuen aukera-sortagaz erakusketari ipini dute, Txanporta kultur etxean, martxoaren 9ra arte. ■ I.E.

Martxoaren 9ra arte, Txanportan daude ikusgai lanetako batzuk

Orain hiru urte ere saria jaso zuen Rodriguezek lehiaketa honetan



GEURE DURANGALDEA

Fernan Ruiz
Berbaroko kidea



Sigi-sagan

Bide polita irudi daiteke, zenbaitetan erromantikoa ere bai. Gorritz margoturiko horren gainean ari naiz eta horren gainetik noa, astiro, metalezko nire maitale gurgildunari eraginez. Sigi-saga noa, ezeroso; oinezkoak paseoa, gurditxoekin errekaduetan, umeak olgetan... Gorri lau leuna atsegina ei zaigu denoi, harlauza latza baino gozoagoa da-eta. Ibilbide laburra egin behar dut, hala ere, luze-zabalak dira burutazioak. Horietako batek ekarri nau gaurkoan Geure Durangaldera.

Oinezkoak eta txirindulariak batera espazioa estuan...; elkarrenganako tirania sentitu daiteke. Gizatalde bakoitzak berea ei duen eremua defenditzen du kosta ahala kosta, inoiz bortizki.

Ozta-ozta libratu dut! Kontxo, ez zaitut ikusi... Ene, aspaldi-ko laguna da, nire artean. Berriketan hasteko gogoa du. Atzera egin du denboran, autoa botere sinbolotzat hartzen zen garaietara. Orduan, autoa izatea maila sozialaren adierazlea zen, ahalguztiduna ere irudikatzen zuen, neurri batean. Bizikleta zaleak baziren, askok beharrera joateko erabiltzen zuten. Aisialdirako gutxi batzuk, errepideetako txinurri gogaikarriak auto-gidarienezko. Nabaria zen autoen tirania.

Hizkuntzara ekarri gura dut tirania usain hori. Konturatu bainaz zenbait (auto)gidarik, oraindik, euskararen bidetik igarotzeko arazoak dituztela, ez ei dago eurentzat eginda. Badirudi gaztelaniaren itzal handiak trafiko arazoak eragiten dizkiotela. Bidegorri txukun samarrak eraiki dizkiogu euskarari, lauak, leunak, muga-markak ondo margotuta, astiro ibiltzeko, jakina; baina handik eroso joan gura duenari oztopoak baino ez zaizkio agertzen han eta hemen. Halaberrez hasi ginen euskararen eta gaztelaniaren arteko sigi-sagan trebatzen. Bidegorriak, aldez, estu samarrak dira, arriskutsuak, are gehiago oinezko zein (auto)gidari askok aintzat hartzen ez dituztenean.



8
martxoak

Emakumeen
Nazioarteko
Eguna

 anboto



Durangoko Merinaldearen
Amankomunazgoa
Mancomunidad
de la Merindad de Durango

Arreta Psikologikoa
eta Juridikoa
emakumeentzat

tel.: 94 620 04 92

Kaleak aldarrikapenez beteko dituzte Lilakrosean

Martxoaren 11n VII. Lilakrosa egingo dute Ezkurdi plazan hasita. Parte-hartze handia izaten duen lasterketan berdintasunaren aldarrikapenak kaleratuko dituzte

Azken sei urteetan legez, datoren domekan, martxoaren 11n, hainbat herritar batuko da arinetan egiteko, lila koloreko kamisetak soinean.

Lilakrosak Ezkurdi plazatik irtengo du, 12:30ean, eta aurten ibilbidea zuzentzen bizikletaz ibiliko direla azaldu du Kety Arrabal Durangoko berdintasun teknikariak: "Jasangarritasunagaz konpromisoa hartzeaz gainera, egokia iruditu zaigu bizikleta,

emakumeek geroago eta gehiago erabiltzen dute eta kalean bizi eta espazioa okupatzeko".

Parte-hartze handia izaten duen krosa izaten da emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldekoa. Antolatzaileek azaldu dutenez, aurten Durangoko 20 elkarte parte hartuko dute testigua elkarri pasatzen.

Ibilbidea

Ezkurditik irten eta Madalenarantz joko dute Lilakrosean parte hartuko duten arineketalariak. Madalena, Landako etorbidea, Montevideo kalea eta Kurutzia zeharkatuko dituzte. Ondoren, Alde Zaharrerako bidea hartuko du Lilakrosak. Alde Zaharrean itzuli bat emanda, Santa Anan jarriko dute helmuga, Andragunean.

Herri lasterketa hasi aurretik kamisetak banatuko dituzte Ezkurdi, urtero legez. Kamisetak saltzen batutako dirua Bateginez Gobernu Kanpoko Erakundearentzat izango da aurten. Aurreko urteetan Haitira edo Saharako emakumeengana biderratu dute diru hori.

Eguerdiko 12:30ean irtengo du lasterketak Ezkurdi plazatik

Durangoko Bateginez GKEari emango diote krosetako kamisetekin batutako dirua



Aurten Durangoko 20 elkartek parte hartuko dute elkarri testigua pasatzen.

Plateruenean jaia, Usue Martinez eta Ullanah-gaz

Martxoaren 8ko aldarrikapenak jai kutsua edukiko dute aurten ere. Eguenean bertan, Durangoko Plataforma Feministak manifestazioa deitu du arratsaldeko 20:00etan. Santa Ana plazan hasiko da manifestazioa eta Plateruena kafe antzokiaren kanpoaldean amaituko dute, bertan hasiko da eta ondoren gojaia ere.

Platerueneko kanpoaldean ekitaldi txiki bat egingo dutela aurreratu dute, eta gero,

22:00etan, kontzertuak hasiko dira kafe antzokian. Usue Martinez kantari durangarrak eta bertako Ullanah folk taldeak eskainiko dituzte kontzertuak. Usue Martinezek joan den Azaroaren 25eko kanta lehiaketa irabazi zuen.



Emakume zientzilarien lana agerian ipintzeko erakusketa

Durangoko ikastetxe guztietako 6 eta 7 urteko umeek Ezkurdi erakusketa aretoa bisitatuko dute martxoaren 12tik 16ra, 'Emakumeak zientzian' erakusketa ikusteko

Emakumeek ekarpen garrantzitsuak egin izan dituzte zientziaren arlorik gehienetan, baina kasu askotan ez dute merezitako oihartzunik eta aintzatespenik jaso gizartearen aldetik. Zientzia emakume horietako asko ezezagunak dira gutako gehienontzat gaur egun ere. Euren lana ezagutzera eman guran erakusketa berezia antolatu izan da azken urteotan Durangon, eskola umeentzat, eta aurten ere atonduko dute erakusketa.

Emakumeak zientzian izeneko erakusketa Ezkurdi erakusketa aretoan egongo da zabalik martxoaren 12tik 16ra, eta Durangoko ikastetxeetako 6 eta 7 urteko umeekin bisita gidatuak egingo dituzte.

Gai honetan trebatuta dagoen ipuin kontalari batek modu ulerterraz eta dinamikoan azalduko die eskola umeei hainbat emakume zientziaren arloan izan duten garrantzia, eta eurek egindako ekarpen nagusien berri emango du.

Mileva Maric eta Marie Curie lako zientzilarien berri jasoko du erakusketara doanak

Aurten Durangoko ikastetxe guztiek parte hartuko dute bisita hauetan

Gaian trebatutako ipuin kontalari baten eskutik jasoko dute informazioa

Erakusketa Teresa Nuñoren (EHUko Zientzia Esperimentalen Didaktikako katedraduna) txosten batean oinarrituta dago, eta Durangon ikasleei aurkezten zaien hirugarren aldia da.

Honako emakume ezagunen gaineko infomazioa jaso ahal izango dute bisita gidatu horietan: Mary Engle Pennington, Marion Donovan, Emili de Breteuil, Sophie Germain, Catherine Littlefield, Caroline Htschel, Ada Augusta Byron, Mileva Maric, Alejandriako Hypatia eta Marie Curie.

Aurreko urteetan ikastetxe batzuk baino ez zuten parte hartu bisita gidatuetan, eta aurten Durangoko ikastetxe guztietako umeek edukiko dute emakume zientzilariei horiek ezagutzeko aukera. Kety Arrabal berdintasun teknikariak nabarmendu duenez, "aurreko urteetan oso ondo irten den bisita izan da. Erantzun oso ona izan du, eta horregatik erabaki dugu ikasle berriei ere aukera hori eskaintzea".



Martxoak 8

emakumeen nazioarteko eguna



MARTXOAK 5-16 Andragunean

ERAKUSKETA: "MUGIMENDU FEMINISTA EUSKADIN" (BEA)

MARTXOAK 5

18:30 ERAKUSKETAREN AURKEZPENA BEA-ko kideekin, Andragunean

MARTXOAK 7 ANDRAGUNEAREN 3. URTEURRENA

18:00-20:00: "Contando el encuentro" Emakumeen topaketa ikasleekin, Andragunean

MARTXOAK 8 EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

20:00 MANIFESTAZIOA irteera Santa Ana plazan,

Plataforma Feministak antolatua

21:00 JAIA Plateruenean

22:00 KONTZERTUA, eguna ospatzeko, Plateruenean

USUE MARTINEZ + ULANNAH

MARTXOAK 11

12:30 LILAKROSA, Emakumeen eta gizonen arteko

Berdintasunaren aldeko VII. ibilbidea. Ezkurdi Plazatik

19:00 "LA GLORIA DE MI MARE"

Choni Compañía Flamenca

San Agustin Kultur Gunean

MARTXOAK 12-16

ERAKUSKETA GIDATUA IKASTETXEENTZAT

"Emakumeak zientzian" Erakusketa.

Ezkurdiko Erakusketa Aretoan





Literatura, kultura askotako emakumeen zubi moduan

Jabekuntza ikastaroetan, 'Topaketak kontatzen' deritzona kultura eta jatorri askotako emakumeen esperientziak elkarnabatzen saiatzen da. Ezagutzaren bitartez, integrazioan eta emakumeen jabekuntzan eragin gura dute

Errealitate desorekatu bat aldatzeko lehenengo iraultza balantzaren behealdean dauden kontzientzietan eman behar da. Emakumeek gizartearen duten parte-hartzea orekatzeko "prestakuntza falta dela" deritza Josune Muñoz irakasleak. Horretarako dira, hain zuzen, jabekuntza ikastaroak: "Emakumeek euren burua beste era batera hartzeko eta ondoren hori gizartearen aplikatzeko gai izateko sortu ziren". Lan-keta hori hamaika modutara egin daiteke; literaturaren bidez, besteak beste. Era berean, literatura eremu aproposa da integrazio prozesurako, munduko kulturak literaturan jasota baitaude, non bilatu jakiten bada eta horretarako borondatea baldin badago. Muñozek esparri biak elkarren zerbizura ipini ditu *Topaketak kontatzen* izeneko ikastaroan.

raren eta bizipenen berri ematen: "Gure iragana eta besteena, gure nortasuna eta mundukoa hobeto ezagutzeko, gure etorkizuna eta bertan izango dugun parte-hartzea hobea izango da; ikastaroa bertako eta kanpoko emakumeen arteko zubia izan dadin nahi dugu", definitzen du Muñozek borobil eta esaldi bitan ikastaroaren nortasuna.

Hainbat euskaldunetz gainera, Maroko, Taiwan, Errusia zein Txileko emakumeek osatzen dute taldea. Literatura da guztiaren garraibidea, gero gaiak bide batetik edo bestetik eraman ditzakeen arren: "Demagun emakume bat marokoarra dela. Zer dakigu hango literaturari buruz? lkerketa lan bat eskatzen du horrek. Tokian tokiko literatura bildu eta hona ekartzen saiatzen naiz". Orduan, eztabaida zabaltzen dute; marokoarrak, esaterako, kontatu denagaz identifikatuta sentitzen den ala ez azalduko du, eta hari horri tiraka errazago kontatuko du bere istorio propioa. Horrela, kulturak ezagutzeko eta alderatzeko eta bizipenak elkarbanatzeko gune bihurtzen da ikastaroa. Eta sinergia hori naturaltasunez ematen da: "Emakumeok munduarekiko eta besteekiko interes handia izaten dugu, eta hori literaturaren bitartez asetzen saiatzen gara". Musikaren bitartez ere bai, ahal denean.

Mariam marokoarra da eta zazpi urte daramatza Durangon.

Maila bi daude, eta martitzen eta eguenetan batzen dira Pinondon

Andragunearen urteurren ekitaldian parte hartuko dute martxoaren 7an

"Ikastaroagaz ideiak, kulturak eta ikuspuntuak alderatzen ditugu; Niri nire istorioa kontatzeko ere balio izan di, nor naizen eta nondik natorren; arretaz entzuten naute eta horrek animatu egiten nau". Marisa Rodriguez euskalduna da, bertakoa: "Alde batetik, kontatzen dutena entzuteko prest gaudela erakutsi gura dugu. Batzuetan istorio gogorak entzuten ditugu, baina beti dira aberasgarriak. Guk euren jakinda eta euren gurea entzunda, elkarren ezagutza aberasten dugu".

Ikastaro baten arrakasta ikasleentz asebetez mailak neurtzen du. Eta gustura dabilzan seinale da bigarren ikastaro bat antolatzeke eskatu izana: "Iazko esperientzia oso aberatsa izan zen,

norabide guztietan, gainera, eta parte-hartzaileek eskatuta erabaki genuen aurten bigarren maila bat sortzea". Bigarren maila horretan parte hartzeko beharrezkoa da lehenengoa eginda izatea. Helburu berekin euren jarduna gizartera ere zabaltu gura dute: "Esperientzia honetatik abiatuz, Durangori zer ekarpen egin geniezaiokeen aztertzen dugu. Zelan zabaltu dezakegun kultura askotako emakumeek elkar ezagutzea eta elkarrekin aritza posible den mezua".

Horrela, martxoaren 7an Andragunearen zazpigarren urteurren ekitaldian parte hartuko dute: "Literaturan mestizajeari buruzko hausnarketa eta aipu interesgarriak daude, eta esanguratsuenak irudituz zaizkigunak batu eta denekin konpartituko ditugu".

Ikastaroa zabalik

Lehenengo mailako ikasleak eguenetan batzen dira Andragunearnean Pinondon duen egoitzan, 17:00etatik 19:00etara. Bigarren mailakoak martitzenetan elkartzen dira, ordu eta toki berean. Izena-ematea 94 465 70 92 telefonoan edo Pinondo Etxean egin daiteke.

"Bertako eta kanpoko emakumeen arteko zubia izan gura du ikastaro honek"

Emakumeak eta Euskal Literatura ikastarotik eratorri den urrats berria da *Topaketak kontatzen*. Lanketarako eremu geografikoa ez da Euskal Herria bakarrik, mundu osoa baino. Munduko emakumeak euren kultu-

Euskal Herriko jabekuntza eskolak aitzindari dira

Josune Muñozek esperientzia zabala du jabekuntza ikastaroak ematen. Estatu osoan zehar ibili izan da, eta "estatu mailan Euskal Herriko jabekuntza ikastaroak aintzindari" direla dio. Arago: "Kanpotik hona etorri eta hemengo ikastaroen maila ikusten dutenean, mirestuta gertatzen dira". Ermua eta Getxo lako herrietan txertatu zuten lehe-

nengoz jatorriz Hego Ameriketako den programa. Gero-za zabaltu zen Durangora eta beste hainbat herritarra.

Topaketak kontatzen moduko ikastaroak antolatzea ez da erraza. Metodologia ikastaroa garatu den heinean moldatzen, aldatzen zein aberasten joan dela dio: "Hamaika teknika berri sortu eta ikasi behar

izan dut, ikastaroek merezi duten kalitatera heltzeko". Malgutasuna da ikastaroaren ezagarrizako bat, "ez baita ahaztu behar oso ondo pasatzea dugula helburuetako bat".

Lan handia eskatu arren, Muñozek altxor moduan hartzen du lan karga hori: "Emakume harriak eta zoragarriak ezagutu izan ditut. Nik gehiago ikasi dut ikasleengandik ikasleek nigan baino; seguru nago. Tartean ez banengo, ordaindu egingo nuke parte hartzeagatik".

Emakume zein gizonei parte hartzeko deia egin diete Zaldibarren

'Emakumea naiz eta harro nago' izeneko berbaldiagaz ekingo diote Zaldibarren egitarauari; irteera eta bilkurarik ez da faltako egunotan

Hurrengo egunetan prestatutako ekintzetan parte hartzeko mugarik ipini ez eta emakumei legez gizonei ere ekitaldietara hurreratzeko gonbita egin diete antolatzaileek. Udaz gainera, Helmuga elkarteak pisu handia izan du eraketan. Martxoaren 6rako dute lehenengo hitzordua. Izan ere, Loredi Salegi *Emakumea naiz eta harro nago* berbaldia eskaintzera etorriko da

Liburutegi Zaharrera. Arratsaldeko 18:00etatik aurrera garatuko da berbaldi hori.

Martxoaren 8an Donostiarako txangoan murgilduko dira, Akuarioa eta San Telmo museoa bisitatuz. Goizeko 08:30ean irtengo dute udaletxeko plazatik. Arratsaldean, bestalde, triki-bertso-poteoan batu-ko dira herritik osteratxoa egiteko.

Mahaiaren bueltan

Martxoaren 9an segituko dute, etenik barik, ekitaldiek. Goierriko auzo-etxea izango da eguneko topaleku, afaria eta dantzaldia bertan burutuko dituzte-eta. 20 eurotan ipini dute sarrera, eta parte-hartzaileek autobusean joateko aukera edukiko dute, udaletxetik irtengo du-eta 21:15ean. Txoko Gozo, Bitxiak eta Gure Lekun eskuratu daitezke afarirako txartelak.

Amaitzeko, hilaren 10ean eta 11n erakusketa zabalduko dute Liburutegi zaharrean. Helmuga elkarteak kideek landutakoak egongo dira ikusgai goizez; zapa-tuan, arratsaldez ere bai.

Martxoaren 8an Donostiarako txangoan murgilduko dira

Hilaren 9an afaria eta dantzaldia burutuko dituzte Goierriko auzo-etxean



Zine-foruma eratu dute martxoaren 8aren bezperarako

'Buda explotó por vergüenza' pelikula ikusiko dute martxoaren 7an, 18:00etatik aurrera, eta ondoren eztabaidarako tartea zabalduko dutela iragarri dute

Zaldibarren Emakumeen Nazioarteko Eguna dela-eta antolatutako ekitaldien baitan hilaren 7ko zine-foruma azpimarratu daiteke. 18:00etan izango da ekitaldia, Liburutegi Zaharrean, *Buda explotó por vergüenza* lana ikusi eta komentatzea helburu dutela.

2007an Iran eta Frantziako ondutako filma da Zaldibarren eskainiko dutena, 81 minutukoa. Donostiako Zinemaldian saritua izan zen urte horretan bertan, epaimahaiaren sari berezi bat jasoz. Afganistango neskato txiki bati buruzko ikus-entzuzkoa da: eskolara bidean doala mutilen irainak jaso behar izaten ditu ume horrek.

Neska inguratzen duen gizarte krudelaren isla ezagutuko dugu eskolara bidean jasan-ko duen esperientziagaz. Ikas-tea helburu, oztopoak gainditzeko ahaleginduko da neskatoa.

Donostiako Zinemaldian saritua izan zen pelikula hau, 2007an



EMAKUME LANGILEAREN XVI. ASTEA 2012

MARTXOAK 6, MARTITZENA

18:00 Hitzaldia: "Emakumea naiz eta harro nago". Hizlaria: Lorea Salegi. Tokia: Liburutegi zaharra. Haurtzaindegi zerbitzua doan.

MARTXOAK 7, EGUAZTENA

18:00 Irakurketa: "Zergatik Martxoak 8?". Ondoren **Zine-foruma:** "Buda explotó por vergüenza". Tokia: Liburutegi zaharra. Haurtzaindegi zerbitzua doan.

MARTXOAK 8, EGUENA

08:30 Donostiara irteera: Akuarioa eta San Telmo museoa bisitatuko dira. Tokia: Udaletxeko plaza. **19:00 Triki-bertso-poteo girotua,** udaletxeko plazan hasita.

MARTXOAK 9, BARIKUA

Afaria eta dantzaldia, Goierriko Auzo etxean. Prezioa: 20 euro. Txartelak martxoaren 6a arte salgai Txoko Gozo, Bitxiak (Olga) eta Gure Lekun. Autobusa doan 21:15ean udaletxean.

MARTXOAK 10, ZAPATUA / MARTXOAK 11, DOMEKA

Helmuga elkarteak egindako lanen erakusketa. Tokia: Liburutegi zaharra. Zapatua: 11:00-13:00 / 17:00-19:00. Domeka: 11:00-13:00



Kirolaren bitartez ere parekidetasuna bultzatu gura dute

'Añeketan' ekimenaren hirugarren edizioaz gainera, spinning saioa egingo dute kirol arloan emakumeen parte-hartzea sustatzeko asmoz

Parekidetasunaren bidean, har dezagun testigua leloa ipini diote Berrizen Martxoaren 8aren bueltako egitarauari. Emakumeen eskubideak eta euren parte-hartzea aldarrikatu gura dituzte, baita kirolean ere. "Emakumeen aldeko aurrerapauso sozial ugari eman dira arlo guztietan, kirolean ere bai, baina emakumeen eta gizonen artean ustez berdintasuna dagoen arren, oraindino benetako berdintasuna eskuratzeko oztopoak dauzkagu", azaldu dute prentsaurrekoan.

ren 10erako ipini dute hitzordua. Eguerdiko 12:00etan elkartuko dira futbol zelaian, zenbakiak banatu eta txapliguaren ondoren arineketan hasteko. Ibilbidea etapa laburretan bananduta egongo da, eta bakoitza udalerriko elkarte edo talde bateko emakume batek ordezkatu du. Hori dela-eta, antolatzaileek erakunde bakoitzeko emakume baten parte-hartzea eskatu dute, etapako lekukoa eramateko. Aurreko urteetan arrakasta lortu izan du lasterketak.

Spinningean ere bai

Txirrindularitzarekiko afizioa herria handia dela-eta, spinningean jardungo dute martxoaren 9an, 19:00etan, Olakueta plazan. Kiroldegian herritar askok parte hartzen du mota honetako saioetan, eta kalera atera gura dute, emakumeen parte-hartzea bultzatzeko helburuz, azaldu dutenez. Doan izango da izen-ematea, udaletxean.

Kirolagaz jarraituz, martxoaren 10ean Ginkana eratuko dute hainbat elkartek, Amaraune eskalada taldeak eta Hiltegi-xe gaztetxeak, esate baterako.

Antolatzaileek erakunde bakoitzeko emakume baten parte-hartzea eskatu dute

Ekitaldi garrantzitsuenetako bat *Añeketan* herri-lasterketa izango da. Hirugarren urtez jarraian irtengo dute herriko emakumeek korrika egiten; aurten martxoaren



2012ko EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

"Parekidetasunaren bidean, har dezagun testigua!!!"

MARTXOAK 8 EGUENA "EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA"

18:00 KALE ANTZERKIA Txintxaun Kolektiboa Urtiaga Plazan

19:00 KONTZENTRAZIOA Urtiaga Plazan

MARTXOAK 9 BARIKUA

19:00 SPINNING SAIOA Olakueta Plazan (euria eginez gero frontoian)

Oharra: Dutzak egongo dira.

Izen ematea dohainik: Kiroldegian eta Udaletxean

22:00 "KATMANDÚ, UN ESPEJO EN EL CIELO"

Berrizko Kultur Etxea

Sarrera: Helduak 5 €/Umeak 3€

MARTXOAK 10 ZAPATUA

12:00 "III. AÑEKETAN"

Futbol zelaian dorsal banaketa.

Txapliguarekin hasiko da

Izen ematea dohainik: Berrizko Udaletxean

13:00 BERTSO-SAIOA. Bertso eskolako umeen eskutik. Olakueta Plazan

17:30 GINKANA, Frontoian. Antolatzaileak: Amaraune, Hiltegi-xe eta Pagotxa

20:00 NEGRA antzerkia Berrizko Kultur Etxea, Sarrera: 5 €

MARTXOAK 11 DOMEKA

19:00 "KATMANDÚ, UN ESPEJO EN EL CIELO" Berrizko Kultur Etxean.

Sarrera: Helduak 5 €/Umeak 3€

Izen-ematea eta informazioa:



Berrizko udaletxean

☎ 946 824 036

berdintasuna@berriz.org - www.berriz.org

'Katmandú, un espejo en el cielo' ikusgai bi egunetan

Icíar Bollaín zuzendariaren 'Katmandú, un espejo en el cielo' izeneko filma eskainiko dute Berrizko Kultur Etxean, martxoaren 9an 22:00etan eta 11n 19:00etan

Kirolari garrantzia berezia eman arren aurtengo ospakizunen baitan, kultura ez dute albo batera utzi, inondik ere. *Katmandu, un espejo en el cielo* pelikula izango da menu osoko plater nagusia, gainerako ekintzek ere euren ekarpena egingo dutela ahaztu barik. Icíar Bollaín zinegileak zuzendutako lana da Berrizen aurkeztuko dutena.

Katmandura joandako emakume katalan baten istorioa kontatzen du Bollaínen sorkuntzak. Protagonistak, Verónica Echegui-zen azalean, hango errealitate gordina ezagutuko du heldu eta berehala, bertako eskola batean beharreen hasten denean. Hor-

tik aurrera, txabola-auzoetan barneratuko da, hango hezkuntza-proiektu batean buru-belarri lan eginez. Maitasuna eta laguntasuna ezagutuko ditu hango gizartean zeharreko zein bere baitarako bidaia sakonaren bidez.

Pelikula ikusteko helduek bost euro ordaindu beharko dute eta umeek hiru

Martxoaren 9an 22:00etan proiektatuko dute pelikula, eta 11n arratsaldeko 19:00etan. Helduek bost euro ordaindu beharko dute, eta umeek hiru.

Katmandura joandako emakume baten istorioa dakar Bollaínek

Maitasuna eta laguntasuna ezagutuko ditu bere baitarako bidaian

Antezlanak

Antzerkiaren alorrean, aipatzekoa da Txintxaun kolektiboak kaleko ikuskizuna eskainiko duela hilaren 8an, kontzentrazioa hasi aurretik. Zapatuan, bestalde, *Negra* antzezlan izango da taula gainean.

Egun horretan bertan, martxoaren 10ean, bertso eskolako umeek herritarren aurrean abestuko dute, eguerdiko 13:00etatik aurrera. Olakueta plazan burutuko dute saioa.

Zelan bizi dute Martxoaren 8a hiru belaunalditako emakumeok?



Zaloa Fuertes

Hiru belaunaldiren ordezkartzat hartu ditugu 72 urteko Mari Carmen Abasolo, 1964an jaiotako Goiuri Sarobe eta 23 urteko Geaxi Gomez iurretarrak. Martxoak 8a eta emakumeen askapena zelan bizi zuten eta duten galdetu diegu amama, ama eta bilobari

Badaukazue ohiturarik Martxoaren 8an antolatzen diren ekimenetan parte hartzeko?

Mari Carmen: Lehenago ez nuen parte hartzen, gazte-gaztetatik alarguna naizelako eta hiru ume txiki aurrera ateratzeko beharegin behar izan dudalako. Baina orain hamar urtetik hona, hartzen dut parte gehiago, eta oso sartuta ez nagoen arren lurretako Anderebide elkarterko kide ere banaiz.

Goiuri: Gaztetatik bizi izan dugu mugimendu feminista. Gu gazte ginela, nerabe ginela hasi zen hartu-eman sexual, abortuaz, etab. gehiago berba egiten, eta berdintasuna txikitatik landu dugu ikastolan. Gu baino nagusiagoak ziren Maritere, Purita, Amaia, Bittori eta beste hainbat andrekin lan asko egin zuten alor honetan, eta gazte ginela hasi ginen batzarretara eta manifestazioetara eta joaten.

Geaxi: Ezin dut askorik kontatu, ze uste dut gauza asko eginda etorri zaizkigula nire belaunaldikooi: borroka egin zuten. Lortu gura izan dena badaukagu ia, eta orain arte ez dugu kalera atera eta aldarrikapenak egiteko beharrik sentitu. Uste dut asko aldatu dela pentsakera: askoz liberalagoak gara denok, eta mutilak ere kontzientziatu daude.

Zer uste duzue dagoela berdintasunaren arloan oraindik egiteko?

Geaxi: Badaude gauza asko egiteko daudenak, emakumeak orain ere menpean gaude zentzu batean. Gizartean goian daudenak gizonak dira oraindino ere: emakume

kumeari asko kostatzen zaio gizar-teko botereguneetara ailegatzea. Emakumeak, ikasi eta lan egin, gizonak legez etxetik kanpo egiten du gaur egun, baina botere lekuetan emakume horiek non dauden da galdera. Gaur egungo emakumeak hor egotea gura du, eta argi dauzka bere lehentasunak. Gizartea hain indibidualista izanik, emakumeak ere konturatu gara hor egon behar dugula.

Zer aldarri egiten zenituzte n orain urte batzuetako martxoaren 8ko ekitaldietan?

Goiuri: Sexualitateari zein beste alor askori dagokionez askatasuna aldarrikatzen genuen, batez ere: elizak isilarazitakoa azaleratu eta gizarteko arauak ezbaian jarzea gura genuen.

Mari Carmen: Guk bestelako heziketa eduki genuen; ama oso ona, baina oso elizarakoa geneukan. Nire seme-alaben belaunaldiagaz etorritako aldaketa itzela izan zen berdintasun aldarrikapenari dago-

“ Emakumeari oraindino ere asko kostatzen zaio botereguneetara ailegatzea ”

“ Sexualitatean zein beste alor askotan askatasuna aldarrikatzen genuen ”

kionez: aldaketa handiena sasoi hartan bizi izan genuen.

Zer motako lanbideetan ibili zarete edo zabilzate?

Mari Carmen: lurretan okindegia zabaldu nuen duela 37 urte, eta Gorabiden sukaldari jardun nuen beste hainbat urtean. 66 urte gaz jubilatuta egin naiz, zorionez.

Goiuri: Oso gaztetan hasi nintzen lanean, ikasi eta lan egiten nuen aldi berean hasieran, jatekietan zerbitzari moduan.

Geaxi: Integrazio soziala ikasten dihardut nik.

Berdintasunaren arloan zerk arduratzen zaituzte? Bide onean goaz?

Mari Carmen: Nork jakin bide onean goazen!

Goiuri: Nik uste dut gizonen edo emakumeen barik, pertsona begiratzen ikasi behar dugula: norberaren askatasuna bilatu behar genuke, berdintasunaren kontrako joera inkontzienteak apurtzen ahaleginduz.

Hurrengo belaunaldiei zer transmititu behar genieke?

Geaxi: Emakume eta gizonen roletan, aurreko belaunaldien banaketa horregaz hazi naizela uste dut. Nire belaunaldikook, baina, gure seme-alabak heztean horrekin apurtzen jakingo dugula pentsatzen dut. Heziketan dago oinarria, eta uste dut kapazizango gara la berdintasunaren balioa transmititzeko: bai gizon eta emakumeen artean, bai sexualitate aniztasunari dagokionean.

MARTXOAK 8

IURRETA - 2012

EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

MARTXOAK 5 (Astelehena) 18:15 Ibarretxe kultur etxean
MESTIZAJE LITERATURARI BURUZKO TAILERRA.
 Izen ematea: Martxoak 2a arte.

MARTXOAK 8 (Eguna) Ibarretxe kultur etxean
EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA.
ADIERAZPEN INSTITUZIONALA - MUSIKA KONTZERTUA
 19:00 ADIERAZPEN INSTITUZIONALAREN IRAKURKETA
 19:30 MUSIKA KONTZERTUA: Ekialdeko Musika Zeltiarra, Tangoak eta Euskal Musika. "MALENKO".

MARTXOAK 9 (Barikua) 18:30 Ibarretxe kultur etxean
BIDEFORUMA. "LAS CHICAS DE LA LENCERIA"
 Moderatzailea: Marina Santa Coloma.

MARTXOAK 10 (Zapalua)
EMAKUMEENTZAKO AUTODEFENTSA.
 10:00-14:00 eta 15:30-19:30 Golzez eta arratsaldez
 Formatzaillea: Maitena Monroy.
 Izen ematea: Otsailak 20tik martxoak 2ra.
 Oharra: 14 urtetik gorako emakumeentzat zuzendua.
 Ibarretxe kultur etxean

EMAKUMEENTZAKO AFARIA.
(MUSIKAZ ALAITURIK).
TOKIA: Ikuspegi jatetxea (Goluria)
 21:30 (20:45 Autobusa Bidebarrietako geltokian)
 Leku kopuru mugatua.
 Txartelak salgai martxoak 2a arte:
 Ibarretxe kultur etxean eta Goluria kulturetxean (ostegunetan 16:00etan)
 Prezioa: Bazkideak / erroldatuak: 25 euro. Bestenak: 30 euro.
 Argibide gehiago: 94 620 03 42 / 616 490 506

IURRETxe
ELEIZATEKO
UDALA

Anderebide
Emakumeen Elkartea

XLRGUNXX

BFA
DFB
Birikako Foru Alkandua
Diputación Foral de Bizkaia

Eskubide bat eta krisialditik irteteko neurri bat

LANDU BERDINTASUNA

Enpresetako berdintasun-politikek **emakumeen talentua aprobetxatzen dute**, eta krisiari aurre egingo dion **eredu sozioekonomiko berri bat** sortzen dute, justuagoa eta eraginkorragoa.

Martxoaren 8a, Emakumeen Nazioarteko Eguna



ANTZERKIA > EMANALDIA

Antzokia ikusle gaztez beteta 'Des-berdinak' estreinatzeko

Durangoko San Agustin kulturgunean, 170 ikusleren aurrean eskaini zuten Karrika antzerki taldeko gazteek sexualitate askatasunari buruzko antzezlan



Ane Barcena

Karrika antzerki taldeko 18 eta 21 urte bitarteko bost gazte izan ziren joan zen barikuan San Agustin kulturgunean lepo bete zuen emanaldiaren protagonistak. Ekainaren 28an, Sexualitate Askearen Egunean, gertuko lagunentzat aurrestreinatu zuten *Des-berdinak* antzezlan, eta aretoa betetzen zuten 170 lagun aurrean eskaini zuten oraingoan.

Maite Lopezek burutu zituen lanaren prestaketako zuzendaritza lanak, eta Izaro Andes, Julene Bernaola, Markel Ganboa, Yeray Gomez, eta Eneko Sagardoy dira obrako bost antzezleak.

Ikusleen berbetan "oso hurrekoa" den Eneko Sagardoy taldekidearen testua da *Des-berdinak* lan honen oinarri: sexualitate askatasunaren gainean gizartearen "trabaztearen" metafora da ez gora ez

Maite Lopezek burutu zituen prestaketako zuzendaritza lanak

Ikusleen berbetan, "oso hurrekoa" da Eneko Sagardoy-ren testua

behera geratzen den igogailua Karrikako gazteen obra honetan. "Blokeo egoera horretatik ateratzeko giltza", gazteek diotenez, "egia" dela erakutsi gura dute.

Igogailu bat ez gora ez behera, "gizartearen blokeoaren metafora"

Elkarrengandik oso desberdinak diren bost pertsonaia biltzen dira antzezlaneko igogailu horretan, eta "ikusle bakoitza euretari baten batekin identifika daiteela, obra amaitzen denean gogoea egin dezala" gura dutela azaldu du Markel Ganboa taldekideak: obra ikusi aurretik pertsonaje bakoitzarekiko zeuzkaten jarrera eta aurreiritziak eta amaieran daukatena alderatu ditzatela.

Jendeak hurbil sentitzen duen era batean kontaturik, komikotik gutxi duten egoerei "buelta eman, eta era freskoan azaltzen" jakin dutela aipatu diete joan zen barikuko emanaldian batu ziren ikusleek taldekideei. Publikoan gazte asko batu zirelako oso pozik agertu dira taldekideak eurak, eta aurrerantzean, lana ahalik eta lekurik gehienetan erakustea dutela helburu ere aipatu digute. ■ I.E.

DANTZA > ZORNOTZAN

Eliraleren 'Ninika' dantza garaikideko ikuskizuna, familia osoarentzat

Zornotza Aretoan, martxoaren 3an 18:00etan da hitzordua lau urtetik gorako ikusleentzat pentsatutako obra ikusteko


Pantxika Telleria Donibane Lohitzuneko koreografoak 2001n martxan ipinitako Elirale taldeak iaz estreinatu zuen *Ninika* dantza ikuskizuna da, zapatu arratsaldean, Zornotza Aretoan ikusteko aukeran izango duguna. "Hiru dantzarentzako koreografia-lan horretan mintzaira garaikidea eta

euskal mintzaira tradizionala nahasten dira", ikuskizunaren aurkezpen orrian diotenez.

Lau urtetik aurrerako ikusleei zuzenduriko ikuskizuna da *Ninika*, poesia eta absurdoa baliatzen dituena eta eguneroko bizitzako mugimenduen azterketan oinarrituta dagoena.

"Jantzien eta horien historiaren bitartez, denboraz kanpoko eta denboraz haratagoko bidaia" proposatzen du Joseba Irazokiren musikagaz eta Pantxika Telleriaren koreografiagaz burututako *Ninika* lan honek. ■ I.E.

Joseba Irazokiren musika eta Pantxika Telleriaren koreografiagaz egina



PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

MARTXOAK 3 22:00etan
CORIZONAS
KONTZERTUA. Sarrera: 14,20-16euro

MARTXOAK 8 22:00etan
Usue Martinez eta ULANNAH
EMAKUME LANGILEAREN EGUNA
KONTZERTUA. Sarrera doan.

MARTXOAK 10 19:00etan
LOKALEROAK SAIOKO GALA
JAIALDIA. Sarrera doan.

www.plateruena.net

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.:946 030 300

LA GLORIA DE MI MADRE Choni Compañía Flamenca

Martxoak 11 • 19:00

San Agustin KULTUR GUNEA DURANGOKO UDALA

Hitz
liburu-denda

artekalea 14,
durango (bizkaia)
info@hitzliburudenda.com
946 810 776

EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN



Astero etxean DOAN jaso dezazun egiten dugu behar

12.000 BAIETZ!

anboto

komunikabideak



2012ko harpidedun berrien artean ere EROSKI BIDAIAKek emandako 6 asteburu-pasa zotz egingo ditugu, eta Anbotoko harpidedun guztien artean aste bateko egonaldia Kanariar irletan

HARPIDEDUN EGITEKO **3** AUKERA DITUZU:

1 anboto@anboto.org
helbidera idatzi.

2 946816558
telefonora deitu.

3 Kupoia bete eta
bidali Anbotora.

ANBOTO ASTEKARIA - Bixente Kapanaga 9 - 48215 IURRETA



Izena Abizenak

Telefonoa E-posta

Helbidea..... Herria.....

“Seguru nago hainbat begirale dabilela Axier Intxaurrearen lana hurretik zaintzen”

Behe-behetik hasi eta mailarik gorenean egonkoritu den entrenatzaile moduan, ondo ezagutzen du bide malkartsu horretako gorabeheren berri. Osasunari eta bertan bizi duen une gozoari buruz ere galdetu diogu zaldibartarrari.

Otsailean urtebete joan da Osasun Camacho ordezkatu zenuenetik.

Iaz taldea sufritzen zebilen, eta azken hamabost partidetatik zortzi irabazita mailari eustea lortu genuen azkenean. Aurten taularen erditik gora ibili gara orain arte. Beraz, balantzea ona da, baina badakigu hiru partidatan egoera erabat aldatu daitekeela hain liga parekatuan.

Lehenengo itzulia postu erosoan amaitu duten taldeak sarritan ikusi ditugu ligako azkeneko txanpan sufritzen.

Niri ere horixe gertatu zitzaidan Valladolid taldeagaz. Hamar partida geratzen zirela, bat irabaztea nahikoa genuen salbatzeko, eta hiru berdinketa bakarrik lortu genituen, horietako bat azkeneko jardunaldian, gainera; Betisen aurka, jaitsiera euren edo gure artean zegoela. Justu-justu eutsi genion mailari.

Horri hedabideek eragiten duten presioa gehitu behar zaio.

Horrelakoa da futbola, astero-astero azterketa bat izaten dugu. Irabaziz gero, Europara begiratu behar da, eta galduz gero txarrak gara. Entrenatzaileok badakigu mundutxo honek zelan funtzionatzen duen. Horregatik, gauzak normaltasunez hartzen ahalegintzen gara.

Presio horregaz guztiagaz aurrera egiten ikasi egiten da?

Bai, ikasi egiten da. Jendeak uste du “partidaz partida joan behar dugu” esaldia bestelako helburuetan ez zentratzeko erabiltzen dugula entrenatzaileok, baina esaldi hori, berbaz berba, egia biribila da. Liga honetan, hiru-lau talde kenduta, besteok mailari eusteko adina puntu batu behar dugu lehenengo, eta ondoren hasi beste helburuetan pentsatzen.

Baina igartzen duzu zaleen artean ilusioa piztu dela?

Zaleek ilusioa edukitzea gauzak ondo irteten dabilzan seinalea da. Gu gara hankak lurrean eduki behar ditugunak, eta egoerari normaltasunez aurre egin behar diogunak.

Bartzelonak kanporatu zintuzten Errege Kopatik, baina itzuliko neurketa irabazi egin zenieten. Errezetarik bai Athleticentzat?

Horretarako ez dago errezetarik, zoritxarrez. Bartzelonari irabazteko ez da nahiko norberak

DATUAK
Izen-abizenak: Jose Luis Mendilibar, zaldibartarra, 50 urte
Entrenatzaile ibilbidea: Arratia (94-95), Athletic Club kadeteak (96-99), Bilbao Athletic (99-01), Aurrera Vitoria (99-01), Lanzarote (02-04), Eibar (04-05), Athletic Club (05), Real Valladolid (06-10), Osasuna (11-)

gauzak ondo egitea. Sarritan alderantziz izaten da; eurak fin ez dabiltzanean izaten dute aukeraren bat aurkariak. Aukera asko sortu ohi dute, eta ate aurrean kamuts badabilta, orduan izaten dugu besteok min egiteko aukera.

Athleticen Durangaldeko hainbeste jokalarik egotea (Amorebieta, Iturraspe, Castillo, Koikili eta Ustaritz) poztekoa da...

Harro egoteko moduan gaude. Athleticen jokatzeko duten bizkaitar gehienak Durangaldekoak dira. Lana ondo egiten dabilzan seinalea da. Gainera, eskualdeko gaztetxoentzat ere asko esan gura du horrek. Eredu moduan ikusten dituzte, eta auzoko bat Athleticen jokatzera heldu dela ikusita eurek ere ilusio bera izan dezakete. Motibazio hori inportantea izaten da gaztetxoengan.

Ez nioke inori presiorik sartu gura, baina Durangaldeko hurrengo Jose Luis Mendilibar Axier Intxaurrea izan daiteke?

Gauza on asko egin ditu. Iaz Durangoko Kulturala *play off* tarako sailkatu zuen, eta aurten Amorebietagaz begiratu zelan dabilen. Askok uste zuten Amorebietak ezingo ziola maila hori denboraldi osoan eutsi, eta oraindino lehia betean sartuta dabil. Futboleko zorteak ere behar da, baina dohainak badauzka. Seguru nago bere lana ez dela oharkabean pasatzen ari, eta talde bat baino gehiago dabilkiola jarraitzen.

Baina zeuk esan duzun moduan, zortea ere behar da.

Bai, eta horrez gainera, Euskal Herriko irtetea ere ez dator txarto batzuetan. Bizkaian Athleticek jasotzen du harreta ia osoa, Gipuzkoan Errealak... Zamoran, Salamancan edo antzeko talderen batean orain Amorebietagaz



Iazko otsailean hartu zuen Jose Luis Mendilibarrek Jose Antonio Camachoren tokia Osasunan.

“Bartzelonari irabazteko ez dago errezetarik zoritxarrez; eurek egun txarra izan behar dute”

“Sarritan oihartzuna lortzeko ona da Euskal Herriko irteten eta beste talde batzuk entrenatzea”

egiten dabilen lan berak oihartzun handiagoa izango luke. Garrantzitsuena zoazen taldea ondo aukeratzea da.

Behoko mailetan dabilzan euskal taldeen partidarik ikusteko denborarik izan duzu?

Ez askorik. Lemoa eta Eibarren partida bana ikusi dut.

Lemoa aipatu duzunez, larri dabilta, kirol arloan ez eze, ekonomikoki ere bai.

Arlo ekonomikoa da larriena, horri buelta ematea ez da-eta erraza izaten. Ez dakit zer gertatuko den, baina hain herri txikia hainbeste denboran bigarren B mailan egotea, denboraldi onak eginez, gainera, mirari txiki bat da eta errekonozimendua merezi du.

Nazioartean entrenatzeak ez zaitu tentatzen?

Horretarako, zoazen estatuko hizkuntza dominatu beharra duzu. Futbola hizkuntza unibertsala dela diote, baina komunikazio naturalak asko laguntzen du. Ezeri ez diot aterik ixten, baina oraingoan ondo nago nagoen tokian.

Txirrindularitza gustuko duzu? Jarraitzen dituzu Ruben Perez zaldibartarraren ibilerak?

Oso gustuko dut txirrindularitza, eta asko poztzen nau Ruben Perez hor goian egoteak. Tourrean espezialista bihurtu dela ematen du; iaz maila handian ibili zen. Txirrindularitza oso disziplina gogorra da, eta ez da erraza onenekin ibiltzea; meritu handia du Rubenek. ■ J.Derteano

Itsaskirriaren erdian, esperantzarako taldea

Hainbeste talde eta proba desagertzekotan diren sasoiak, Cafés Baquék 34. denboraldia egingo du errepidean



Eguenean aurkeztu zuen Cafés Baquék aurtengo talde ofiziala. Kepa Aginako

Errepidean izango dira, eta ez da gutxi azken aspaldian txirrindularitzaren inguruan entzuten direnak entzunda. Cafés Baquék txirrindulari taldeak 34. urtez lehiatuko du aurten. Atzo aurkeztu zuten 23 urtez azpiko taldea; guztira, 12 txirrindulari daude hainbat adin eta deneriko esperientziadunak. Horietako bat 20 urteko Jon Gonzalez amorebieta-etxanoarra da; aurten hirugarren denboraldia du taldean.

Aurtengo staff teknikoa Ruben Gorospek —bederatzigarren denboraldia izango du— Marino Lejarretak eta Joseba Belokiren tokia hartuko duen Alberto Leanizbarrutia txirrindulari ohiak osatuko dute. Belokik

Alberto Leanizbarrutia
Joseba Belokiren tokia
hartuko du aurten

urtebete iraun du zuzendari laguntzaile lanetan; beste konpromiso laboral batzuk medio, taldea utzi beharrean aurkitu da. Leanizbarrutiaren esanetan, "gazte osaturiko proiektu honetan bakoitzak barruan daraman onena atera dezan saiaturiko gara". Postuak gomuta onak dakarziola ere onartu du berriztarrak, Cafés Baqué taldeko txirrindularia izan baitzen orain dela 30 urte.

Hasiera ona

Ruben Gorospek aurtengo helburuak laburbildu ditu: "Hainbeste talde indartsuren artean, postu onak lortzea dugu helburu. Jakina, aukera dugunetan garaipena ere bilatuko dugu". Joan zen asteburuan ekin zioten Euskaldun Torneoari eta Zumaiaiko lehenengo lasterketan zortzigarren amaitu zuen Cafés Baqué taldeko Jon Quintanillak.

Jon Gonzalezek lehenengo sasoi puntu egokia hartu behar du, belauneko lesio batek sei hilabetez lehia ofizialetik kanpora eduki duelako. ■ J.D.

> Bideoa: www.anboto.org

ADITUAREN TXOKOA



Unai Zamalloa
Saskibaloia entrenatzailea

Martxoan, azkenari begira

Estatu Batuetan, N.C.A.A liga unibertsitarioan, March Madness delakoan sartzen dira egunok. Zer esan nahi du horrek? Ba, hilabete honetan jokatzeko direla, Unibertsitate Ligako talde guztietako finaletara heltzeko *play-off*ak eta bertatik irtengo direla Zortziko Final Nagusia jokatu duten unibertsitateak.

Hemen ere, egunotan denboraldi bukaerara begira jartzen gara, eta momentu erabakior asko izaten dira.

Hala nola, Tabirakoko mutilen talde nagusia, azkenean, jaisiera postuak ekiditeko A-2 taldean sailkatu da, nahiz eta A-1ean sartu diren batzuekin berdinduta geratu; 'average'-ak zulora bidali ditu. Ez da erraza izango, zeren eta, datorren urtera begira taldez murriztu nahi dute lehenengo maila, eta 7 talde jaisiko dira Autonomía mailara. Jaisiera ekiditeko, hamar taldeko multzo honetan Tabirako argi eta zuhur aritu behar da, denboraldi bukaeran sorpresa eskasik ez izateko.

Nesken taldeak, ordea, Atletico SSri irabazi ondoren, orain kanpoan irabazteko partida dauka Burlataren aurka. Zazpigarren postuan finkaturik eta jokalarik guztiak berreskuraturik, lesioak eta bestelakoak atzean utzita, denboraldi bukaera ona egiteko aukera dauka; eta goiko postuetara igotzeko aukera ere badu, horrela, datorren urtera begira eta taldea mantenduz, lehenengo bi postuengatik borrokatzera irteteko aukerakin aritzeko. Litekeena da-eta.

Azkenik, nire Zornotza: azken bi partidetan bi garaipen eta sailkapenean bosgarren. Nik uste dut hartu dugula martxa, eta orain edonori irabazteko edo gutxienik gauzak zail jartzeko gai gara. Ia Donostian sorpresa ematen dugun larunbatean!

Domekan mendi bizikleta ibilaldia egingo dute Elorrion

29 eta 18 kilometroko ibilbide biez gainera, gaztetxoentzako beste bat prestatu dute



Goizko 10:00etan hasiko da lasterketa, Herriko Plazan.

Elorriko Txirrindulari Elkarteak XIII. Mendi Bizikleta Martxa ibilaldia antolatu du domekan. Lasterketa 10:00etan hasiko dute Herriko Plazan, eta ibilbide bi prestatu dituzte: 29 eta 18 kilometrokoak. Gaztetxoentzako zazpi kilometroko beste ibilbide bat ere prestatu dute.

Izen-ematea 09:00etan hasiko da, plazan bertan. Federatuentzako euro bi da izen-ematea, eta federatu bakoitzako 14 euro, lizentzia eta eguneko aseguruia izan dezaten. Dutzak eta bizikletak garbitzeko

guneak egongo dira, eta ondoren jan-edana banatuko dute parte-hartzaileen artean.

Ibilbide luzea egitea aukeratzeko dutenek 900 metroko desnibel positiboa gainditu behar du. Besteak beste, Betsaidetik igaroko dira. ■ J.D.

Dutzak, bizikletak
garbitzeko gunea eta
jan-edana egongo dira

Iurreta Txirrindulari Elkartearen denboraldiko lehenengo irteera



Lehenengo irteera ofizialagaz ekin dio denboraldi berriari Iurreta Txirrindulari Elkarteak. Asteburuetako irteerez gainera, hainbat ekimen prestatzen dituzte urtean zehar: Bizikleta Festa, Ahari Iurreta martxa, Kofradietako Irteera... 2013an 30 urte egingo ditu Iurretako elkarteak. ■ J.D.

Sokatiran zilarra eta brontzea abadiñarrentzat

Eskoziako jokatuak Munduko Sokatira Txapelketan zilarrezko eta brontzezko domina bana irabazi ditu Abadiñok. 560koan irabazi zuten zilarra. Finalerdietan Txina Taipei kanporatu ondoren, finalean ezin izan zuten ezer egin Irlandako Country Club taldearen aurka; 600 kiloko artekoan, Kilroe talde ingelesak kanporatu zituen. St Pats taldearen kontra eskuratu zuten brontzea.

Orain urte bi, pisu horietan urrea irabazi zuen Abadiño Sokatira Taldeak, baina aurtengo maila handia ikusita oso gustura daude emaitzagaz.

Tiraldi mistoetan ere parte hartu zuen Abadiñok, eta Badaiotzegaz talde osatuz bigarren geratu ziren. ■ J.D.

Itsaso Pradera Euskadiko hirugarren txapelaren bila

Paleta gomako finala jokatuko dute zapatuan Mallabian; orain arte txapelketa jokatu den aldi bietan Pradera izan da txapeldun



Aurrean bere aukerak sortzen saiatu beharko du Pradera mallabitarra. Kepo Aginako

Herriarren animoen artean Euskadiko Paleta Goma Txapelketa hirugarrenez irabazten saiatuko da Itsaso Pradera, zapatuan, 17:00etatik aurrera. Laura Saez bizkartzain duela, Amaia Irazustabarrena eta Ariane Arrieta izango dituzte arerio. Iaz protagonista berak hel-

Atzean belaunaldi bi lehiatuko dira: 31 urte dituen Laura Saez eta 16 urteko Ariane Arrieta

du ziren finalera, eta Praderak eta Saezek 30-20 menderatu zituzten. Aurten, ordea, aurkariek gora egin dute, iaz baino sendoago dabilta eta final estua aurreikusi daiteke. Atzean belaunaldi eta jokatzeko modu bi egongo dira, parez pare. Arrietak 16 urte besterik ez ditu

eta jotzailea da. Adinean ia bikoiztu egiten duen Saezek (31 urte) bonbardaketari eustea eta partida gogortzea bilatuko du.

Bigarren mailako finalean ere Durangaldeko protagonista bi daude. Amaia Araistegi mallabitarra —Lejarragoitiagaz bikotea osatuz— Gaxi Gallastegi atxondarraren eta Leire Etxanizen aurka lehiatuko du.

Iurreta eta Berriz trinketean
Trinketeari dagokionez, joan zen asteburuan argi geratu zen, beste behin, Durangaldeak espezialistik onenetakoak dituela. Bizkaiko txapelketa irabazi zuten Iurretako Olaburu eskola-ko Otadui eta Callejak kadete-etan eta Berrizko Oizpe eskola-ko Perosanzek eta Urkijok bigarren mailan.

Lehenengo mailako finalak gaur, 18:30ean jokatuko dituzte Abadiñoako Tornosolon. Uriarte era Antxia abadiñarrek Gordon eta Ugarte izango dituzte arerio.

Bestalde, Kluben Arteko Euskadiko Txapelketako finalak jokatuko dituzte asteburuan, hainbat maila eta modalitatetan. Eneko Perosanz eta Asier Berasaluze berriztarrek eskuz binakako txapela lehiatuko dute Bergaran, gaur 19:00etan.

Fronteniseko finalak Mañarian jokatuko dituzte zapatuan, 10:00etan. Mikel Iraurgi abadiñarrak eta Alberto Alvarez izurtzarrak jokatuko dute finaletako bat. Azkenik, zestako finalak Durangoan jokatuko dira, zapatuan, 16:00etan. ■ J.D.

Agenda

ERRUGBIA

OHOREZKO B MAILA
Durango Ilarduya - Arkitektura
Domekan, 12:00etan, Arripausuetan

FUTBOLA

GOREN MAILA (gizonak)
Zaldia - Iurretako
Zapatuan, 17:00etan, Solobarrian
HIRUGARREN ERREGIONALA (gizonak)
Elorrio B - Moraza B
Zapatuan, 18:00etan, Eleizalden
Ezkurdi - Betolatza
Zapatuan, 16:00etan, Arripausuetan
Iurretako B - Txurndinaga
Zapatuan, 18:00etan, Larrakozelain
Berriz B - Salesianos
Domekan, 11:30ean, Berrizburun
LEHEN ERREGIONALA (emakumeak)
Iurretako -Pauldarrak
Domekan, 11:45ean, Larrakozelain
Elorrio - Ugao
Zapatuan, 16:00etan, Eleizalden

ARETO FUTBOLA

GOREN MAILA (gizonak)
Mallabia Hierros Serv.-Soloarte
Domekan, 17:45ean, Zaldibarko udal kiroldegian
Elorrioko - Sestao
Domekan, 11:45ean, Elorrioko udal kiroldegian

Institutuko gaztetxoak Euskadiko txapeldun krozean

Haurren kategorian, podiumeko gorenera igo ziren neskak Elgoibarko lasterketan

Durangoko Institutuko nesken taldea krozean Euskadiko txapeldun atera zen, joan zen domekan, haurren kategorian. Elgoibarren jokatutako lasterketan Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako selekzio indartsuei ere aurrea hartu zieten.

Bizkaiko Txapelketako lau lasterketak irabazita, nagusitasunez sailkatu ziren Euskadiko txapelketera, eta hor ere maila handia dutela erakutsi zuten.

Hauek dira taldea osatzen duten gaztetxoak: Nerea Costa, Naroa Martinez, Ines Pinaga, Amaia Renobales, Jone Calleja, Irati Arrieta, Irati Cubero eta Aitana Merino. Nerea Costak Espainiako banakako kros txapelketan ere parte hartuko du, martxoaren 10ean Coruña.

Bestelakoan, hemendik aurrera pista gaineko txapelketetan zentratuko dira Durangoko Institutuko neskak. ■ J.D.



Distantzia berean urrea ere lortu du oraintsu promesetan.

Zilarra jantzita itzuli da Varas Espainiako Txapelketatik

Pista estalian eta nagusietan lehenengo domina eskuratu du 19 urteko durangarrak

Pista estaliko Espainiako Atletismo Txapelketan zilarrezko domina irabazi du Bidezabalgo Alicia Varasek, Sabadellen. Finalean kaskar irten arren, atzetik aurrerako bidea eginda 7.70eko denboran zeharkatu zuen helmuga. Segundo, ehunen eta milaren berak behar izan zituen Maria de Frutosek ere, eta epaileek bie eman zien zilarra. 60 metroan Ana Torrijos izan zen txapeldun.

1.500 metroan Bidezabalgo Iraia Garciak eta 400 metroan Ane Miren Martinezek ere parte hartu zuten, eta lan txu-

kuna eginagatik ezin izan zuten finalerako sailkatu.

Kros txapelketa asteburuan
Irati Sarriugarte, David Garcia, Iraia Garcia, eta Betit Solar Espainiako Bakarkako Kros Txapelketan lehiatuko dira asteburuan. Garcia kros laburreko Euskadiko txapelduna da, eta Solar kros luzeko Euskadiko txapelduna; lehenengo hogoien artean sailkatzea dute helburu. Ibilketa proban Eva Maria Igleasiasek eta Javi Ontosok parte hartuko dute, eta biek podiumean egon gura dute. ■ J.D.

Mailari eusteko lehen asaltoa du etzi Ilarduyak Arripausuetan

Ohorezko B mailako A multzoan azkeneko postuan geratu da Durango Ilarduya; ondorioz, B multzoko azken aurrekoaren kontra jokatuko du jaitziera fasea, Madrilgo Arkitektura taldearen aurka, hain zuzen ere. Joaneko partida domekan 12:00etan jokatuko dute, Arripausuetan. Madrilgo bueltakoa martxoaren 18an izango da.

Lehia estua itxaroten du DRTko lehendakari Juan Manuel Iriondo "Txapo"-k: "Antzeko maila dutela esango nuke. Lehia estua izango da, eta gauzak ondo egin beharko ditugu irabazi gura badugu".

Kanporaketa gaintzen badute ohorezko B mailan jarraituko du Durango Ilarduyak. Galduz gero, lehen nazional mailako bosgarren sailkatuaren kontra jokatuko dute azken kanporaketa erabakiorra. Izan ere, datorren denboraldian ohorezko B maila handitu egingo dute, eta horregatik lehen laurak automatikoki igoko dira. Esan beharrik ez dago, estuasunik larrienean ere maila bat beheragoko bosgarren sailkatuaren kontra jokatzea abantaila polita dela durangarentzat. ■ J.D.



Hemendik aurrera pistako txapelketetan zentratuko dira.



Baserriko hondakinetan 700 ontzi huts eta 25 tona plastiko bildu dituzte

Berotegietako plastikoak eta belar-siloak baserrikerik baserrikeri batzen dituzte urtean bi bider

Durangaldean 2010etik dago martxan hondakin bilketa programa; Urkiola Landa Garapena kudeatzen du

Hurrengo bilketan animalien eta landareen osasuna zaintzeko produktuen ontzi hutsak batuko dituzte, martxoaren 19 eta 20an

Baserrietan sortzen diren hondakinak gaika batzeko ekimena 2010ean hasi zen Durangaldean eta Urkiola Landa Garapena elkartearen arduratzen da programaren kudeaketaz.

Urkiola Landa Garapenetik nabarmendu dutenez, "partehartzea handitu egin da, baina oraindino parte hartzen ez duten ustiategiak gehiengoa dira". 2011n landareen eta animalien osasuna zaintzeko erabiltzen diren produktuen 700 ontzi huts baino gehiago batu zituzten. Plastikoak ere batzen dituzte, negutegiko plastikoak eta belar-siloak, eta iaz 25 tona inguru batu zituztela azaldu dute. Artzain elektrikoek pilak ere biltzen dituzte.

Azaldu dutenez, batez ere txakolin ustiategiek parte hartu dute hondakinen bilketan.

Hurrengo bilketa martxoan

Hurrengo hondakin bilketa martxoaren 19an eta 20an izango da. Hondakin fito eta zoosanitarioak batuko dituzte orduan, DIBA kooperatiban. Parte hartu gura duten baserriarrei edukiontzi berezi bat emango diete, eta bertan gorde beharko dituzte hondakinak, gero DIBAn uzteko. Hondakin horiek hiru hilabeterik behin batzen dituzte. Besteak beste, ongarrien, herbiziden eta fungiziden ontzi hutsak, eta baita xiringak eta parasitoen kontrako txertoen ontzi hutsak ere.

Berotegiko plastikoak eta belar-siloen hurrengo bilketa apirilaren 26an egingo dute. Bilketa hori baserrikerik baserrikeri buruko dute, eta parte hartzeko izena eman beharko da Urkiola Landa Garapena elkartearen. Api-

rilean eta urrian egingo dute bilketa hori.

Artzain elektrikoek pilak urteko edozein egunetan batzen dituzte; nahikoa da DIBA kooperatiban dagoen edukiontzi berezian uztea.

Bilketak

Ontzi hutsak: hiru hilerik behin DIBA kooperatiban. Hurrengo bilketa: martxoaren 19an eta 20an

Berotegiko plastikoak eta belar-siloak: Urtean bi bider, baserrikerik baserrikeri. Hurrengo bilketa: apirilaren 26an

Artzain elektrikoek pilak: edozein egunetan DIBA kooperatiban

Amankomunazgoaren aurrekontuaren erdia gizarte laguntzara bideratu dute

Behargintzaren bitartez, gizartetik baztertuta geratzeko arriskuan daudenak lan-munduan txertatzeko proiektua bultzatuko dute



Durungaldeko Merinaldeko Amankomunazgoak astelehenean onartu zituen 2012rako aurrekontuak. 6.893.017,99 euroko aurrekontuagaz egingo diote aurre urteari. Aurreko urteagaz alderatuta, %2,90eko jaitsiera izan dute. Udalek egiten dituzten ekarpenetan ere, %6,23ko beherapena izan dute batez beste. Oskar Zarrabeitia Amankomunazgoko presidentek jakitera eman duenez, 2012an gas-tu eta sarreren diru-atalak doitu gura izan dituzte. Zarrabeitiak argitu gura izan duenez, beherapen horrek ez du esan gura oinarritzko zerbitzuak murriztu direnik.

“Gizarte zerbitzuak bermatzea eta enplegu eta sustapen ekonomikoa bultzatzea izan dira aurrekontu hauek lantzerakoan erabili ditugun irizpideak”, azaldu du.

Martxan jarri gura izan dituzten proiektuak finantzatzeko soberakineko baliabideak erabili dituzte aurrean. Soberakinetik 590.000

euro hainbat inbertsio eta proiektutara bideratu ditu 2012an.

Amankomunazgoak BTT zentroa jarri gura du martxan Abadiñoko trinketean

Jantoki soziala, eguneko zentroa eta aterpetxe zerbitzua eskaini gura dituzte

Gizarte zerbitzuak

Bederatzi gizarte laguntzaile eta hiru administrarik osatzen dute Amankomunazgoko lan-taldea (3.066.340 euro). Diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria orain Lanbidek kudeatzen dituzenez, hausnarketa egin eta baliabideak “egokitu” egin behar dituzte, Zarrabeitiaren berbetan. Gainera, etxeko laguntza eskatu beharrean diru-laguntza eskatzen dute hainbat herritarrek, eta horrek ere aurrekontua doitzen “lagundu” du.

Lana eta enpresak

Pertsonen prestakuntza alorrean, 14 ikastaro eskainiko ditu Behargintzak. Batzuk gizarte-bazterketa arriskuan daudenei zuzenduta egongo dira. Tartean 272 orduko iraupena duen formazioarako ikastaroa eskainiko dute. Formazioa-

